MEMORIA
2025











ELANKIDETZA
LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2025A LABURREAN

2025EAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

170 ekimen

8 dirulaguntza-lerro

47 herrialde

+900.000 pertsona baino gehiago lagunduta

58.891.036,75 € eman ziren

Afrika

% 25,36 lortutakoa — helburua % 25

Emakumeen ahalduntzea

% 18,17 lortutakoa — helburua % 20

Hegoko erakunde feministak

% 16,57 lortutakoa — helburua % 10

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk

% 15,99 lortutakoa — helburua % 9

Euskadin gauzatutako ekimenak

% 15,74 lortutakoa — helburua % 13

Giza eskubideen defendatzaileen babesa

% 8,28 lortutakoa — helburua % 4

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako esperientzien eta ezagutza teknikoen trukea **18** pertsona

PLANGINTZA ETA ARAUDIA

+ 2025-2026 Bi Urteko Plana
+ 2025-2026rako Afrikako Bide Orria

2030 AGENDARAKO EKARPENA

GJH 1 Pobrezia desagerraraztea	% 5,20
GJH 2 Goserik ez	% 6,79
GJH 3 Osasuna eta ongizatea	% 4,33
GJH 4 Kalitate oneko hezkuntza	% 6,12
GJH 5 Genero-berdintasuna	% 33,87
GJH 6 Ur garbia eta saneamendua	% 4,25
GJH 8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	% 2,18
GJH 9 Industria, berrikuntza eta azpiegitura	% 0,24
GJH 10 Desberdintasunak murriztea	% 4,89
GJH 11 Hiri eta komunitate jasangarriak	% 1,00
GJH 12 Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	% 1,14
GJH 13 Klimaren aldeko ekintza	% 3,84
GJH 15 Lehorreko ekosistemetako bizitza	% 0,97
GJH 16 Bakea, justizia eta erakunde sendoak	% 25,19

(6) Osakidetza (3) Emakunde (2) ura (4) Lanbide Heziketa (1) Neiker (2) ihobe

SARRERA

2025ean, Eusko Jaurlaritzaren XIII. legegintzaldian, Javier Cortés Fernández izendatu zuten eLankidetzako zuzendari. Zuzendaritza aldaketa horrekin batera, euskal lankidetzak nazioarteko garapen agendan duen lekua sendotzeko apustua indartu du. Horretarako, tokikoa eta globala lotzen dituen ikuspegia sustatu nahi du, lurraldeetan errotutako jarduna eta eragile ugariren arteko lankidetza ardatz hartuta, giza garapen iraunkorra bultzatzeko.

Norabide horrek oinarri du Lankidetzarako eta elkartasunerako 3/2024 Legea. Lege horrek aitortzen du mundu mailako erronkek eta lurraldeetan garatzen diren erantzunek lotura estua dutela. Horrenbestez, eLankidetzak lurraldea ez du ulertzen soilik esku hartzeko eremu fisiko gisa; konfiantza, zilegitasun instituzionala eta lankidetza eraikitzeko gune gisa ere ulertzen du. Administrazioek, gizarte erakundeek, enpresek, unibertsitateek eta herritarrek elkarrekin jarduteko espazioa da, eta, horregatik, eraldaketa iraunkorrak sustatzeko funtsezko eragilea.

Ikuspegi horrek bat egiten du Euskadik 2030 Agenda garapen ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta kulturala eraldatzeko tresna gisa ulertzeko egin duen hautuarekin. Testuinguru horretan, Euskadik Nazio Batuek sustatutako Blueprint ikuspegia bere egin du. Gida horren helburua da gaur egungo erronka konplexuei gobernantza kolaboratiboko prozesuen bidez erantzutea, hainbat eragile eta erakunde mailaren parte hartzea sustatuta.

Euskadik 2030 Agenda ezartzeko metatutako esperientziak erakutsi du posible dela gobernantza maila desberdinen ezagutzak, gaitasunak eta baliabideak uztartzea. Horri esker, lurraldeetatik bertatik susta daitezke gizartean eragin sakona duten aldaketak.

Lurralde ikuspegi hori nazioarteko jardunaren erdigunean kokatu dugu azken urteotan. Aldi berean, gobernantza globalean gero eta indar handiagoa hartzen ari diren joerekin bat egin dugu. Izan ere, erronka konplexuei aurre egiteko, gero eta beharrezkoagoa da hainbat eragilek eta erakunde mailak modu koordinatuan jardutea. Ikuspegi horrek tokiko ekimenak nazioarteko adostasunekin lotzen ditu, eta esku hartze eraginkorragoak eta iraunkorragoak ahalbidetzen ditu.

Helburu horrekin, 2025ean presentzia handiagoa izan genuen Nazio Batuen, Europar Batasunaren eta ELGAren esparruetako nazioarteko foroetan. Gainera, garapen iraunkorraren, lankidetza deszentralizatuaren, garapenerako finantzaketaren eta 2030 Agendaren inguruko eztabaida globaletan parte hartu genuen.

Nazio Batuen esparruan, Sevillan egin zen Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzian (FFD4) parte hartu genuen, bai eta konferentzia prestatzeko prozesuan ere. Halaber, Road to Seville ekimenean eta Bilbao Local Finance Design Sprint egitasmoan aritu ginen, lurraldeetatik garapen iraunkorra finantzatzeko bide berriak aztertzeko.

New Yorken egin zen Garapen Jasangarriari buruzko Goi Mailako Foro Politikoan (HLPF 2025) ere izan ginen. Foro horretan, Euskadik berretsi zuen 2030 Agendaren jarraipenaren eta kontu ematearen arloan nazioarteko erreferente izateko duen bokazioa. Horretarako, gobernantza maila guztiak eta hainbat eragile biltzen dituen ikuspegia aurkeztu zuen.

ELGAren esparruan ere hainbat ekinalditan parte hartu genuen. Besteak beste, lankidetza deszentralizatuak tokiko gobernantzan duen eraginari buruzko nazioarteko tailerretan izan ginen, eta Euskadik lurralde ikuspegiaren eta lankidetza deszentralizatuaren arloan pilatutako esperientzia partekatu genuen. Halaber, parte hartze nabarmena izan genuen Garapenaren Eraginkortasunari buruzko Busango Foro Globalean. Bertan, eskualdeetako eta tokiko gobernuekin batera, 2030 Agenda lurraldeetan txertatzearen nazioarteko aitortza indartzen lagundu genuen, baita lurraldeek garapen iraunkorrean duten zeregina azpimarratzen ere.



Javier Cortés Fernández
eLankidetzako zuzendaria

AURKIBIDEA

JARDUEREN URTEKO MEMORIA

1

1.1. Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren koherentzia eta koordinazioa 8

1.2. Gatazkak eraldatzea eta bakegintza 14

1.3. Giza eskubideak 16

1.4. Generoa 24

1.5. Afrika 36

1.6. Ekintza Humanitarioa – Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk 46

1.7. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza 54

1.8. Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa 60

1.9. Komunikazioa eta kontuak ematea 64

1.10. Plangintza 64

1.11. Jarraipen-bidaiak 68

1.12. Pertsonen kudeaketa 72

AURREKONTUAREN EXEKUZIOA ETA EMANDAKO FUNTSAK

2

2.1. Aurrekontu-bilakaera 74

2.2. eLankidetzaren aurrekontuaren exekuzioa 76

2.3. Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomoen aurrekontuen exekuzioa 78

2.4. eLankidetzak 2025ean emandako dirulaguntzak 80

JARDUEREN MEMORIA

1



1.1.
LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO POLITIKAREN KOHERENTZIA ETA KOORDINAZIOA

eLankidetzan uste dugu garapen jasangarrirako politiken koherentzia erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana ezinbestekoak direla erronka globalei aurre egiteko. Horregatik, lan ardatz hori sustatzen eta indartzen jarraitzen dugu, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai beste erakunde eta eragile batzuekin elkarlanean.

1.1.1.
Ekarpena mundu osoko osasunari

2025ean, *Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globaleko* programa bultzatzen jarraitu genuen. Lankidetza teknikoko ekimen horren helburua Ginea-Bissauko osasun sistema publikoa indartzea da. 2022an abiatu zuten programa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetzak, eLankidetzak eta AIDA elkarteak (Ayuda, Intercambio y Desarrollo), eta herrialdeko erreferentziazko ospitalean gauzatzen da: Hospital Nacional Simão Mendesen (HNSM).

2025eko uztailaren 2an, ekimenari eusteko Jarduteko Protokolo Orokorra berritu genuen beste lau urterako, 2029ko uztailaren 1era arte. Horrela, indarrean jarraituko dute 2021ean Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak sinatutako lankidetza akordioaren oinarri nagusiek.

Urtean zehar, hamar kooperantek parte hartu zuten programan, horietatik sei Osakidetzako profesionalak. Haien lana funtsezkoa izan zen osasun arloko prestakuntza jarraitua bermatzeko eta ospitaleko arreta kalitatea hobetzeko. Besteak beste, larrialdi zerbitzuan, barne medikuntzan, kirurgian eta kontsulta espezializatuetan jardun zuten. Euskal taldearekin batera, tokiko osasun sistemako zortzi profesionalek ere parte hartu zuten programan.

Komunikazioaren arloan, ekainean sentsibilizazio kanpaina bat abiatu genuen EITBren bitartez. Kanpainaren helburua izan zen euskal gizarteari programa hurbiltzea eta ekimenak ahalbidetzen duen ezagutza eta gaitasunen trukea balioan jartzea. (Ikusi komunikazio atala).

Osasun programaren laugarren urtea erronka handien testuinguruan garatu da. Zailtasun nagusiak herrialdearen eta ospitalearen egoera soziopolitiko eta instituzionalari lotuta egon dira, baina, hala ere, programak jardunean jarraitu du, osasun sistema publikoa indartzeko helburuari eutsiz.

Laugarren urtean lortutako emaitza nagusiak

- \+ Luzaroko prestakuntza egituratuak sendotu dira anestesia, barne-medikuntza/larrialdiak eta kirurgia espezialitateetan, eta 233 prestakuntza-saio teoriko eman dira espezialitate horietan.
- \+ Erizaintzako prestakuntza espezializatuak eman dira.
- \+ Zazpi jarduketa-protokolo egin dira.
- \+ Elkarrizketak izan dira Ginea Bissauko Medikuen Elkargoarekin eta Osasun eta Hezkuntza Ministerioarekin, osasun-programaren prestakuntza egituratuak egiaztatzeko.
- \+ Datu klinikoak erregistratzeko tresna digital bat garatu da.
- \+ HNSMn dauden genero-arrakala eta -desberdintasun nagusiei buruzko genero-azterketa egin da.
- \+ Medikamentuak, intsumo medikoak eta ekipamendua hornitu dira.

1.1.2.
AKUAL programa

Programa bertan parte hartutako Erdialdeko Amerikako erakundeen konpromiso handiarekin garatu zen. El Salvadorren eta Costa Rican agintari-aldaketa batzuk izan arren, programari babesa berretsi zioten. Gainera, ASAren eta ANDAren arteko lankidetza indartu da, ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko aukerak irekiz, batez ere landa-eremuan. NILSA, Navarra de Infraestructuras Locales-ek ekimenean izango duten parte-hartzearen definizioan ere aurrera egin zen.

Apirilean, programak hirugarren saria jaso zuen PLATFORMAwards 2025 sarietan. Europako PLATFORMA sarearen ekimena da, garapenerako lankidetza deszentralizatuko praktika onenak aintzatesteko eta ospatzeko.

1.1.3.
UNRWAren Lanbide Heziketako programaren eraldaketa

Hezkuntza Sailarekin sinatutako jarduteko protokolo orokorraren esparruan, 2025ean aurrera egin genuen UNRWAri laguntzeko abian den Lanbide Heziketaren Eraldaketa Programan (2024-2026). Programa horren baitan, Jordaniako Lanbide Heziketako bi ikastetxetan hasi ginen lanean.


Egindako jarduerak hainbat esparrutan oinarritu dira: ikasketa planak eguneratzea, zuzendaritza taldeak eta irakasleak prestatzea, eta ikastetxeetako ekipamendua hobetzea. Lan hori guztia UNRWAren Lanbide Heziketako estrategia orokorra berrikusteko prozesuarekin uztartu da.

Urtean zehar, Euskadi eta Jordania arteko talde eragile mistoa sortu zen, bai eta lanbide arloka antolatutako lantaldeak ere. Era berean, ekipamenduaren ezaugarri teknikoak adostu ziren, lizitazio prozesua abiatu zen eta ikasketa curriculuma eguneratzeko lanari ekin zitzaion.

Programaren mugarri nagusietako bat 2025eko maiatzean izan zen, Jordaniako ikastetxeetako zuzendari eta irakasleek Euskadira egindako bisitarekin. Topaketa horrek erakundeen arteko koordinazioa indartu eta bi aldeetako lankidetza sendotzeko aukera eman zuen.

Programak 2025ean lortutako emaitza nagusiak

- San Alejon instalazioa eta zerbitzuak inauguratu eta martxan jarri ziren.
- Azpiegiturei dagokienez, hiri eta landa arloko hornidura-sistema hobetzeko lanean aurrera egin da.
- Aurrera egin da ura kudeatzeko tokiko erakundeetan genero-ikuspegia txertatzeko lanean.
- Komunikazioaren arloan aurrerapausoak eman dira, komunikazio-estrategia ezarri delako.
- Hego-hego lankidetzarako guneak indartzen lagundu da, hala nola uraren eta saneamenduaren zerbitzuen jasangarritasunaren eta kalitatearen arloko gaietan.
- Ahalmen teknikoak indartzen eta esperientziak trukatzen jarraitzen da Erdialdeko Amerikako eta Dominikar Errepublikako Edateko Uraren eta Saneamenduaren Foroa osatzen duten tokiko eta eskualdeko erakundeen, ur-operadoreen eta Eusko Jaurlaritzako beste erakunde batzuen artean.



1.1.4.
Hondakinen kudeaketa komunitarioa Senegalen

IHOBErekin sinatutako jarduteko protokolo orokorraren esparruan, 2025ean Senegalgo Malicounda komunako bost herritan hondakinen kudeaketa komunitarioa hobetzeko abian den ekimen pilotuari babesa ematen jarraitu genuen. Proiektua Nazioarteko Elkartasuna–Solidaridad Internacional eta Euleuk elkarteek garatzen dute.

Ekimenak bi ardatz nagusi ditu. Batetik, komunitatearen eta tokiko erakundeen arteko partaidetza prozesu zabala sustatzea, etorkizuneko hondakinen kudeaketa estrategiaren oinarriak adosteko. Bestetik, tokiko gaitasunak indartzea, herritarrek eta erakundeek kudeaketa eredu iraunkorragoa garatu ahal izan dezaten.

2025ean, hondakinen kudeaketari buruzko diagnostiko integrala amaitu zen. Aldi berean, prestakuntza jarduerekin jarraitu zen, genero ikuspegia txertatuta. Saioek hondakinen kudeaketa, osasuna eta higienea izan zituzten ardatz, eta emakumeen erakundeei zuzendutako prestakuntzak ere egin ziren, partaidetzaren, lidergoaren eta finantzen inguruan.

Horrez gain, aurrera egin zen tokiko erakundeen eta komunitatearen arteko lankidetza sendotzeko prozesuan, eta ingurumen sentsibilizazioko jarduerak egin ziren ikastetxeetan. Diagnostikotik ateratako ondorioak eta komunitate mailan egindako lana oinarri hartuta, proiektuan parte hartzen duten eragileek hondakinen kudeaketa komunitariorako estrategia bateratua definitzeko beharrezko erabakiak hartzeko prozesuari ekingo diote.





1.1.5.
Ekarpena genero-berdintasunari eta -ekitateari

Maiatzean, El Salvadorko emakume politikarien ordezkaritza bat jaso genuen NBE Emakumeak erakundearekin eta ANDRYSASekin babesten dugun ekimenaren esparruan. Bertan, Emakundek, EUDELek eta Virginia Woolf Basqueskola sareak parte hartzen dute. Bisitan, berdintasunaren alorreko udal-esperientziak ezagutu zituzten, tokiko erakundeekin egindako tailerretan parte hartu zuten, eta emakumeen parte-hartze politikoa eta liderren aurkako indarkeriaren prebentzioa indartzeko praktikak partekatu zituzten. Urte amaieran, berriz ere ekimenari emandako laguntza berritu genuen zuzeneko dirulaguntza baten bidez.

Era berean, Emakundek Kairon parte hartu zuen Erabakiak Hartzeko Esparruetan Gizonen Berdintasunerako Nazioarteko lehen Sarea sortzeko topaketan. Ekimen hori elkarrekin babesten dugun NBE Emakumeak erakundearen Dare to Care programaren esparruan egin zen. Inaugurazio-ekitaldian eLankidetzako zuzendariak parte hartu zuen, eta Gizonduz programaren esperientzia aurkeztu zen. Esperientzia hori inspirazio-iturri izan zen hainbat herrialde arabiarretako ordezkariek osatutako sare berria eratzeko.

1.1.6.
Senegal eta Euskadiko eragileen arteko elkarlanerako memoranduma

2024an, euskal erakundeek eta Saint-Louiseko (Senegal) komunak elkar ulertzeko memoranduma sinatu zuten, lankidetza teknikoaren eta ezagutza trukearen bidez erakundeen gaitasunak indartzeko. Akordio haren bidez, bi aldeek elkarlanerako lehentasunezko ildoak zehaztu zituzten.

2025ean, hainbat bilera egin ziren lankidetza horri jarraipena emateko. Lehen fasean, erakundeak indartzera bideratutako ekintzak lehenetsi ziren, bereziki erregistro zibilaren sistema modernizatzea eta informazio geografikoko sistema bat martxan jartzea.

Uztailean, Saint-Louiseko komunako, Komunen Garapenerako Agentziako eta Eskualde Garapenerako Agentziako ordezkariek Euskadi bisitatu zuten. Bisitaren helburua izan zen euskal erakundeen funtzionamendua, antolaketa eredua eta lehentasunezko eremuetan garatzen dituzten politikak bertatik bertara ezagutzea. Bisita horren ondoren, erregistro zibileko sistema modernizatzeko proiektu pilotu bat

diseinatu eta martxan jartzeko prozesuari ekin zitzaion.

1.2.
GATAZKAK ERALDATZEA ETA BAKEGINTZA

Guatemalako Auzitegiko Antropologia Fundazioaren (FAFG) ordezkaritza bat Euskadira etorri da

Maiatzean, Fredy Peccerelli FAFGko zuzendari exekutiboa eta Nancy Valdez operazio-zuzendaria etorri ziren, desagertutako pertsonen bilaketan eta memoria-politiketan euskal esperientzia ezagutzeko eta, era berean, Guatemalako esperientzia partekatzeko. Ordezkaritzak bilerak egin zituen eLankidetza, Gogora, Aranzadi eta EHUko Biomics ikerketa-taldearekin. Topaketetan, hobiak aurkitzeko, gorpuak ateratzeko eta analisi genetikoa egiteko lanari lotutako hainbat gai partekatu ziren, eta, horrela, indartu egin ziren aurretiazko lankidetzetan hasitako truke teknikoak.





Trantsizioko justizia eta memoria historikoa Guatemalan: Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziarekin batera lan egiteko esparrua

2025eko ekainean, misio bat egin genuen Garapenerako Lankidetzarako Kataluniako Agentziarekin (ACCD) Guatemalan, herrialdean trantsizioko justizia-prozesuei eta memoria historikoari ematen diegun laguntza indartzeko eta jarduera-ildoak eta aliantzak identifikatzeko, eta hala, eLankidetza eta ACCDren baterako lan-esparru bat zehazteko arlo horretan. Giza eskubideen aldeko erakundeekin, NBEko agentziekin eta Guatemalako agintariekin bilerak egin genituen, 2026-2030 aldian bultzatu nahi den esparru estrategiko komun horretarantz aurrera egiteko. Halaber, Polizia Nazionalaren Artxibo Historikoa bisitatu genuen, eta Derrigorrezko Desagerpenen Aurkako Egun Nazionalaren oroitzapen-ekitaldian parte hartu genuen Comalapako Memorialean. Biktimen senideek eta FAFGk sustatutako gune horretan, egiarekiko, erreparazioarekiko eta berriz ez gertatzeko bermeekiko dugun konpromisoa berretsi genuen.

1.3.
GIZA ESKUBIDEAK

1.3.1.
Emandako funtsen % 4 giza eskubideen defendatzaileak babesteko erreserbatzea


Aurten, Afrikako kontinentean giza eskubideen defendatzaileen babesa indartzen jarraitu dugu, Urgent Action Fund – Africa erakundeari emandako zuzeneko dirulaguntza baten bidez, Afrikako mugimendu feministak antolatzeko eta erresilientziarako, zaintza kolektiboaren eta justizia erreparatzailearen ikuspegitik; eta Afrikki Sareari, afrikar aktibisten eta gizarte-mugimenduen gaitasunak eta laguntza indartzeko –ikus 1.5.2. atala-. Gainera, dirulaguntza izendunen bidez, IM-Defensoras erakunde gisa indartzen, Brigadas Internacionales de Pazen intzidentzia-lana indartzen eta Eusko Jaurlaritzaren *NARE - Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa* babesten jarraitu genuen, ZEHAR Errefuxiatuekin erakundeari dirulaguntza izenduna emanez.

Babesa

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Onartutako babes-ekimenen kopurua	Babeserako emandako zenbatekoa	Babeserako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	60	32.000.000,00 €	14	3.398.797,83 €	% 10,62
PRO K3	22	6.673.980,05 €	2	432.856,89 €	% 6,49
ZUZ	10	1.701.522,00 €	2	325.000,00 €	% 19,10
IZE	23	3.945.000,00 €	3	330.000,00 €	% 8,37
PGM	4	3.999.994,94 €	1	387.023,93 €	% 9,68
Besteak	51	10.570.539,76 €	-	-	-
GUZTIRA	**170**	**58.891.036,75 €**	**22**	**4.873.678,65 €**	**% 8,28**

% 8,28





Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea
8 ekimen - **1.944.126,48 €**

Hego Amerika
7 ekimen - **1.738.822,42 €**

Afrika
3 ekimen - **527.872,86 €**

Euskadi
3 ekimen - **512.856,89 €**

Nazioartekoa
Ekimen 1 - **150.000,00 €**

GUZTIRA 4.873.678,65 €

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESA

22 EKIMEN ONARTU ZIREN

+4,8 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Kolonbia

Chocóko lurralde-bakearen eraikuntzan lanean ari diren defendatzaile gazteak.

→ **596.707,15 €** - PRO K1

Ezinbestekoak: lider sozialak eta gatazkaren biktimak, giza eskubideen defentsan eta bakearen eraikuntzan konprometituak.

→ **207.551,87 €** - PRO K1 (*)

Renace: bakea eraikitzen dutenen babesaren alde. Emakumeak, haurrak eta Kiwe Thëgnas, Nasa herrikoak.

→ **211.007,25 €** - PRO K1 (*)

Ekuador

Emakumeak, gazteak eta komunitate ahalduduak aldaketarako eragile gisa, eskubide kolektiboak eta natura defendatzeko.

→ **194.424,76 €** - PRO K1 (*)

Ñukanchik Ushay Ñukanchik Allpamama: autonomia, babesa eta bizitza gure lurraldeetan.

→ **201.140,78 €** - PRO K1 (*)

El Salvador

Lan duina, babesa eta gizarteratzea sustatuz.

→ **90.132,89 €** - PRO K1 (*)

Gizarte-erakundeen eta komunikabide komunitarioen eskualde-artikulazioa.

→ **316.470,73 €** - PRO K1 (*)

Emakumeak erresistentzia ehuntzen eta indarkeriarik gabe.

→ **142.203,28 €** - PRO K1 (*)

Mexiko

Lurraldearen defentsa ekitatearen ikuspegitik: Chiapaseko komunitate indigenek beren ondasun naturalen kudeaketa iraunkorra sendotzen dute. II. fasea.

→ **162.009,66 €** - PRO K1 (*)

Euskadi

Lurralde biziak: erresistentziarako eta zaintzarako txirikordak.

→ **83.654,14 €** - PRO K3 (*)

Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta erakundeak defendatzen dituzten sareak zabalduz eta indartuz.

→ **349.202,75 €** - PRO K3

Eusko Jaurlaritzaren NARE - Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programari laguntzea.

→ **80.000,00 €** - IZE K3

Guatemala

Emakume defendatzaileak, nekazariak eta maiak bizimodu ona lantzen, lurralde-autonomia kolektiboki eraikitzeko.

→ **146.986,92 €** - PRO K1 (*)

Eskubide kolektiboen eta herri indigenen defentsa, justizia klimatikoaren ikuspegitik, trantsizio ekosozialaren erronken aurrean.

→ **387.023,93 €** - PGM EJ (*)

Hainbat herrialde, Afrika

Afrikako aktibisten eta gizarte-mugimenduen gaitasunak indartzea eta haiei laguntzea.

→ **125.000,00 €** - ZUZ K1 (*)

Afrikako mugimendu feministen antolaketa eta erresilientzia babestea, zaintza kolektiboaren eta justizia konpontzailearen ikuspegiaren bidez.


→ **200.000,00 €** - ZUZ K1

Senegal

Karibu: giza eskubideak defendatzen dituztenenganako babesa eta gizarte zibilaren sustapena ikuspegi panafrikanistatik. II. fasea.

→ **202.872,86 €** - PRO K1 (*)

(*) Zifra hori giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesten laguntzeko dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa.



Honduras eta Mexiko

Giza eskubideak defendatzeko eskubidearen alde: defendatzaileen babes integrala Mesoamerikan. III. fasea.

→ **599.299,07 €** - PRO K1

El Salvador, Honduras, Mexiko, Nikaragua eta Guatemala

IM-Defensoras erakundea indartzea, arriskuan dauden giza eskubideen emakume defendatzaileei babes integral feministako prozesuen bidez laguntzeko.

→ **100.000,00 €** - IZE K1

Kolonbia, Guatemala, Nikaragua, Mexiko eta Kenya

Nazioarteko komunitatearen eragina, Afrikan eta Latinoamerikan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonei, erakundeei eta komunitateei babes integrala emateko.

→ **150.000,00 €** - IZE K1

Peru

Ingurumen-defendatzaileek garapen iraunkorra eta eskubideen defentsa sustatzen dute Cajamarcako sei probintziatan.

→ **133.003,52 €** - PRO K1 (*)

Lurraldea, eskubideak eta bizimodu ona: ondasun komunen kudeaketa kolektiborako eta eskubideen sustapenerako alternatibak Cuscoko goi-probintzietan.

→ **194.917,09 €** - PRO K1 (*)





1.3.2.
eLankidetza babes-agentea giza eskubideen defendatzaileentzat

NARE - Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

Urtarrilean, Eusko Legebiltzarrarekin eta gizarte-erakundeekin batera, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak El Salvadorrera eta Costa Ricara gidatutako misioan parte hartu genuen, programaren azken edizioetan Euskadin harrera jaso zuten herrialde horietako pertsona eta kolektiboen egoeraren jarraipena egiteko. Costa Ricaren kasuan, erbestean zeuden erakunde eta aktibista nikaraguarrak bisitatu ziren.

El Salvador txostena

Costa Rica eta Nikaragua txostena

2025eko edizioan, giza eskubideen hiru defendatzaile –bat Kolonbiakoa eta bi Ekuatore Gineakoak– hartu zituzten Euskadin sei hilabetez, eta Saharaz hegoaldeko Afrikako defendatzaileek parte hartzen duten lehen edizioa izan zen.

nare
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA
PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

Adierazpenak eraso, mehatxu eta hilketak direla-eta

Martxoan, programaren esparruan El Salvador bisitatu zuen euskal ordezkaritzaren adierazpenarekin bat egin genuen, Fidel Zavala giza eskubideen defendatzailea atxilotu ondoren. Adierazpen horretan, Zavalarentzat berme juridikoak, premiazko kautela-neurriak eta bere osotasun fisikoa errespetatzea eskatu genuen; horrez gain, euskal erakundeek herrialde horretan giza eskubideen defentsan diharduten pertsonei ematen dieten babesa ikusaraztea ere eskatu genuen.

1.3.3.
Defendatzaileak babestuz jardunaldiak: Afrikako esperientziak

Maiatzaren 6an eta 7an, *Defendatzaileak Babestuz. Giza eskubideen defendatzaileak babesteko Afrikako esperientziak* jardunaldiak egin genituen Gasteizen. Helburua Afrikako giza eskubideen defendatzaileek bizi duten egoera ikusaraztea eta haien erronka nagusien inguruko hausnarketarako gune bat eskaintzea izan zen. Besteak beste, askatasunen murrizketak, balio ultrakontserbadoreen gorakada, gatazketatik eratorritako indarkeria eta baliabide naturalen ustiapenak eragindako arriskuak izan ziren hizpide.

Jardunaldiek hainbat herrialdetako defendatzaileak bildu zituzten, tartean Kongoko Errepublika Demokratikoak, Ugandakoak, Senegalgoak, Keniakoak, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikokoak eta Boli Kostakoak. Topaketek aukera eman zuten esperientziak trukatzeko, Afrikako errealitateen ezagutza sakontzeko eta Euskadiko nahiz Afrikako lankidetza-eragileen arteko harremanak estutzeko.

Jardunaldiak Reine Alapini-Gansou Nazioarteko Zigor Auzitegiko magistratuaren hitzaldiarekin abiatu ziren. Afrikako giza eskubideen defendatzaileek gaur egun duten testuingurua aztertu zuen, eta ondoren hainbat mahai-inguru egin ziren feminismoei, LGBTIQ+ eskubideei, justizia klimatikoari, eragin politiko eta sozialari eta babes mekanismoei buruz. Saioetan, besteak beste, defendatzaileen legitimitate soziala, beren jardunaren aitortza juridikoa eta kolektiboaren autopertzepzioa jorratu zituzten.

Jardunaldien amaieran, ariketa kolektibo gisa, jardunaldietan parte hartu zuten defendatzaile afrikarrek Gasteizko Adierazpena idatzi eta sinatu zuten. Dokumentu horrek lankidetza indartzeko, babes-mekanismo sendoagoak sortzeko eta eragile politikoen, Afrikako erakundeen eta defendatzaileen arteko etengabeko elkarrizketa sustatzeko beharra azpimarratzen du.





Jardunaldiek oihartzun zabala izan zuten hedabideetan. Horrez gain, defendatzaileek eragin politikorako hainbat bilera egin zituzten Imanol Pradales lehendakariarekin, Eusko Legebiltzarreko Berdintasun eta Garapenerako Lankidetza Batzordearekin, Manuel Lezertua Arartekoarekin eta Miren Elgarresta Emakundeko zuzendariarekin.

Era berean, jardunaldien harira, Afrikako hainbat herrialdetako errealitate eta gai espezifikoei buruzko topaketak antolatu genituen. Helburua Euskadin bizi den afrikar diasporaren parte-hartzea sustatzea, esperientziak partekatzea eta loturak sendotzea izan zen. –ikus 1.5.2. atala.-

Esparru-dokumentua

Sistematizazioa

1.4. GENEROA

1.4.1.
Emandako funtsen % 20 emakumeen ahalduntzea helburu duten ekimenentzako erreserbatzea, eta % 10, hegoaldeko erakunde feministentzat


2025ean, emandako funtsen % 18,17 emakumeak ahalduntzeko ekimenetara bideratu genituen, eta % 16,52 Hegoaldeko erakunde feministetara.

Bi ehuneko horiek handitu egin dira iazko datuarekin alderatuta. Emakumeen ahalduntzeari dagokionez, hala ere, ez gara iritsi oraindik ekintza positiborako ezarritakoaren % 20ra. Hegoaldeko erakunde feministen kasuan, aurreko urteetan bezala, plangintzan ezarritako ekintza positiboaren % 10 gainditzeaz gain, gorantz doa.

Afrikako kontinentean lagunduriko ekimen enblematikoak nabarmentzen dira: Prospera – Emakume eta Feministen Funtsen Nazioarteko Sareari zuzeneko dirulaguntza ematea, sarearen funts afrikarrak instituzionalki indartzeko, emakume afrikarren beharrak nazioarteko eragin-guneetan kokatzeko; eta Réseau Siggil Jigéeni beste laguntza bat ematea, Senegalen genero- eta feminismo-kontzeptuak desmitifikatzen eta onartzen jarraitzeko.

Emakumeak ahalduntzea

GUZTIRA
10.701.479,57 €



Hego Amerika
6 ekimen - **3.717.226,54 €**

Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea
8 ekimen - **3.711.014,70 €**

Afrika
4 ekimen - **1.335.000,00 €**


Asia
2 ekimen - **1.175.273,12 €**

Euskadi
2 ekimen - **702.996,45 €**

Nazioartekoa
2 ekimen - **59.968,76 €**

Hegoaldeko erakunde feministak

GUZTIRA
9.728.640,27 €




Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea
12 ekimen - **4.479.147,28 €**

Hego Amerika
6 ekimen - **2.669.026,88 €**

Afrika
7 ekimen - **1.990.806,81 €**

Asia
2 ekimen - **469.736,92 €**

Nazioartekoa
3 ekimen - **119.922,38 €**



Genero

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	AHALDUNTZEA			HEGOALDEKO ERAKUNDE FEMINISTAK		
			Emakumeak ahalduntzeko onartutako ekimen kopurua	Emakumeak ahalduntzeko emandako zenbatekoa	Ahalduntzeko funtsak, emandako funtsen aldean	Ekimen kopurua erakunde feministekin (tokiko bazkideak)	Erakunde feministei (tokiko bazkideak) emandako zenbatekoa	Erakunde feministentzako funtsak, emandako funtsekiko
PRO K1	60	32.000.000,00 €	12	6.503.514,37 €	% 20,32	18	7.012.999,33 €	% 21,92
PRO K3	22	6.673.980,05 €	2	702.996,45 €	% 10,53	-	-	-
PRE	24	4.745.972,11 €	-	-	-	1	47.426,99 €	% 1,00
EHE	5	3.999.998,90 €	2	1.600.000,00 €	% 40,00	2	954.258,40 €	% 23,86
ZUZ	10	1.701.522,00 €	4	735.000,00 €	% 43,20	3	535.000,00 €	% 31,44
IZE	23	3.945.000,00 €	1	100.000,00 €	% 2,53	1	100.000,00 €	% 2,53
PGM	7	4.089.963,69 €	3	1.059.968,75 €	% 25,92	5	1.078.955,55 €	% 26,38
Besteak	19	1.734.600,00 €	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**170**	**58.891.036,75 €**	**24**	**10.701.479,57 €**	**% 18,17**	**30**	**9.728.640,27 €**	**% 16,52**

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA ERAKUNDE FEMINISTAK (3/1)

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA — 24 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,7 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

ERAKUNDE FEMINISTAK — 30 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,5 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

El Salvador

Usulutan iparraldeko emakumeak eta gazteak, garapen komunitariorako eta udal-garapenerako aliatuak.

→ **599.999,98 €** - PRO K1 - Movimiento Salvadoreño de Mujeres

Emakumeak erresistentzia ehuntzen eta indarkeriarik gabe.

→ **587.388,60 €** - PRO K1 - Las Dignas

Berdintasunaren aldeko udalerriak: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta emakumeen parte-hartze politikoa sustatzeko tresnak eta lurralde-prozesuak.

→ **200.000,00 €** - ZUZ

Elkarrekin eta lagundurik, elkar zaintzen eta babesten dugu: komunitatearen osasun integralari eta giza segurtasunari laguntzen La Paz departamenduan.

→ **508.025,80 €** - PRO K1 - ORMUSA

Lan duina, babesa eta gizarteratzea sustatuz.

→ **129.215,36 €** - PRO K1 - (*) COMCAVIS TRANS

Mexiko

Emakume indigenek eta afrikarren ondorengoek bizitza duina izateko eta haien ondarea babesteko eskubidea defendatzen eta eskatzen dute.

→ **598.860,21 €** - PRO K1 - K'inal Antsetik eta CEFOCAM

Honduras

Chavas por el cambio.

→ **600.000,00 €** - PRO K1 - CDM eta Asociación Artemisa

Guatemala

Sare lokalak eta globalak ehunduz askotariko emakumeen ahalduntze integralerako, arrakala digitala hautsiz gobernantza feministaren bidez.

→ **594.607,75 €** - PRO K1

Emakume transek eta LGBTIQ+ biztanleriak beren oinarrizko eskubideen defentsa eta inklusioa sustatzen dute. II. fasea.

→ **598.701,10 €** - PRO K1 - OTRANS

Emakume defendatzaileak, nekazariak eta maiak bizimodu ona lantzen, lurralde-autonomia kolektiboki eraikitzeko.

→ **430.317,27 €** - PRO K1

Emakume maiak bizitzaren zaintza ehuntzen.

→ **399.771,63 €** - PRO K1 - AFEDES

Aliantzak indarkeriarik gabeko Sololako emakume indigenen parte-hartze demokratikorako.

→ **211.641,97 €** - PRO - K1 - (*) AMLUDI

Nikaragua

Mairin nani lantaki dawanka takan: miskita emakumeen lidergoa eta autonomia.

→ **127.968,36 €** (*) - PRO K1 - Nidia Wihite emakumeen mugimendua

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa.

Guatemala, El Salvador eta Kolonbia

Memoria historiko feminista eta belaunaldien artekoa berreskuratzea.

→ **30.000,00 €** - PGM ID - 18.505,76 € - Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas eta Corporación Humanas

El Salvador, Honduras, Mexiko, Nikaragua eta Guatemala


IM-Defensoras erakundea indartzea, arriskuan dauden giza eskubideen emakume defendatzaileei babes integral feministako prozesuen bidez laguntzeko.

→ **100.000,00 €** - IZE - IM-Defensoras

Honduras eta Mexiko

Giza eskubideak defendatzeko eskubidearen alde: defendatzaileen babes integrala Mesoamerikan. III. fasea.

→ **599.299,07 €** - PRO K1 - CDM eta Diálogo Parlamentario eta la Equidad Oaxaca



EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA ERAKUNDE FEMINISTAK (3/2)

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA — 24 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,7 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

ERAKUNDE FEMINISTAK — 30 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,5 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Kolonbia

Chocóko lurralde-bakearen eraikuntzan lanean ari diren defendatzaile gazteak.

→ **596.707,15 €** - PRO K1 - Ruta Pacífica de las Mujeres ✊ ♀

Caucan berriro lurraldean sartzea eta bakerako lankidetza, sareko produkzio-gaitasunak indartuz, ikuspegi bereizgarriarekin. III. fasea.

→ **96.948,71 €** - PRO K2 (*) Corporación Ensayos ♀

Peru

Vilcanota arroko zazpi barrutitako emakumeak aktiboki sartzea uraren gobernantzan eta ekosistemen kontserbazioan.

→ **599.431,70 €** - PRO K1 ✊

Gizarte zibilaren eta erakunde publikoen artean hitzartutako estrategiak finkatzea hamar barrutitan.

→ **567.754,67 €** - PRO K1 - CENDIPP ♀

Ekuador

Emakumezko gazte liderrak ahalduntzuz, sexu- eta ugalketa-eskubideak eta indarkeriarik gabeko bizitza defendatzeko.

→ **321.087,70 €** - PRO K1 - Fundación Desafío ✊ ♀

Bolivia

Landa-eremuko emakumeen ahalduntze estrategikoa Chuquisacan: genero-justizia eta bizitzaren iraunkortasuna.

→ **600.000 €** - PRO K1 ✊

Jatorrizko emakume nekazari indigenek beren erresilientzia indartzen dute, eta bizimodu ona eta despatriarkalizazioko praktikak eta politikak sustatzen dituzte beren udalerrietan.

→ **600.000 €** - PRO K1 - Subcentral Bartolina Sisa 11 de octubre eta Central Bartolina Sisa ✊ ♀

Zaintzen duten hiriak eta komunitateak: genero-berdintasunerako eta bizitzaren iraunkortasunerako estrategiak.

→ **999.999,99 €** - PGM EJ
(*) 623.279,99 € - IFFI eta ECAM ✊ ♀

Euskadi

Zabaltzen II: gaitasunak, ahalduntze prozesuak eta sareak eraikiz eta indartuz.

→ **277.976,67 €** - PRO K3 ✊

Etorkizunak ehuntzen: Euskadi feminista, arrazakeria-ren aurkakoa, ekologikoa eta dekoloniala, emakume migratuen eta arrazializatuen parte-hartzearekin.

→ **425.019,78 €** - PRO K3 ✊

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa.



Kolonbia, Guatemala eta Nikaragua

Emakumeen eta gazteen gizarte-agentzia, parte hartzeko, gizarteratzeko eta indarkeria matxistak ezabatzeko.

→ **29.968,76 €** - PGM ID
(*) 4.467,91 € AMLUDI eta 'Nidia Wihite' emakumeen mugimendua ✊ ♀

Brasil, Kolonbia eta Txile

Europa eta Latinoamerikako nekazarien eta hirien arteko aliantzak: estrategia alternatibo bat eraikiz.

→ **165.586,65 €** - PGM - EX -
(*) ANMC eta ANAMURI ♀

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA ERAKUNDE FEMINISTAK (3/3)

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA — 24 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,7 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

ERAKUNDE FEMINISTAK — 30 EKIMEN ONARTU ZIREN — +10,5 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Senegal

Genero eta feminismo kontzeptuak desmitifikatzen eta onartzen laguntzea.

→ **150.000,00 €** - ZUZ - Réseau Siggil Jigéen

Jigeen Ci Kaw. Aldatzen duten ahotsak: emakumeen eta gazteen bidea gizarte- eta ingurumen-justiziarantz.

→ **421.457,17 €** - PRO K1 - Réseau Siggil Jigéen

Hainbat herrialde, Afrika

Afrikako mugimendu feministen antolaketa eta erresilientzia babestea, zaintza kolektiboaren eta justizia konpontzailearen ikuspegiaren bidez.

→ **200.000,00 €** - ZUZ - UAF - Africa

Palestina

Lotura lokalizatua, okupazioa jasaten duten Nablusen hego-ekialdeko palestinarren eskubideak eta duintasuna modu integralean babesteko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera.

→ **154.258,40 €** (*) - EHE - PSCCW

India

Aliantza feministak eraikitzen, Dalit eta Santal emakumeen elkarteak indartzeko. II. fasea.

→ **375.273,12 €** - PRO K1
(*) 315.478,52 € - Udayani Social Action Forum

Niger

Tillaberiko krisi humanitarioek eragindako neskatilak eta nerabeak babestea eta autonomizatzea.

→ **47.426,99 €** (*) - PRE - Femmes, Actions et Développement

Siria


Ahalduntze-estrategiak, Palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasuna murrizteko. II. fasea.

→ **800.000,00 €** - EHE

Etiopia

Estrategia humanitarioa Tigray eta Amharako gatazka-testuinguruetan: osasuna, eskubideak eta erresilientzia sexu- eta genero-indarkeriaren aurrean, genero-ikuspegiarekin eta lotura hirukoitzarekin.

→ **800.000,00 €** - EHE - WE-Action



Ghana, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kenya eta Tanzania

Afrikan funts feministak eta emakumeenak ikusarazteko eta indartzeko estrategia kolektiboak.

→ **185.000,00 €** - ZUZ - Red Prospera

Mali, SEAD, Senegal eta Mauritania

Emakumeen bake-agenda sustatzea.

→ **267.115,24 €** (*) - PGM EX - Unión Nacional de Mujeres Saharauis eta Femmes Chefs de Famille

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa.

1.4.2.
Erakundeak aldatzeko prozesuak sustatzea EAEko GGKE-etan, genero-ekitatearen alde

Laguntzak lankidetza-entitateei, erakundeak aldatzeko prozesuak sustatzeko genero-ekitatearen alde

2025ean, bederatzi laguntza eman genituen, 344.000 euroko balioarekin, lankidetzaren euskal erakundeetan genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzearren.

5 laguntza

Diagnostiko parte-hartzailea + genero-ekitatearen aldeko ekintza estrategikoko plana egitea

Erakundeen barneko genero-ikuspegiari buruzko X. jardunaldiak

Urtero bezala, 2016az geroztik, jardunaldiak berriro egin ditugu Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera, oraingo honetan indarkeria matxisten aurkako erresistentzia eta zaintza kolektiboen gaiari buruz.

1.4.3.
Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa

2025ean, Zuzendaritza Batzordeak jazarpen-protokoloa onartu zuen, eta eLankidetzako taldeari zabaldu zen.

Halaber, protokoloa aplikatzeko organoetan —konfiantzazko aholkularitzan eta Ikerketa Batzordean— titular eta ordezko gisa jardungo zuten pertsonak izendatu ondoren, urte amaieran Sortzen Aholkularitzak prestakuntza saioa egin zuen, pertsona horiek beren eginkizunak betetzean izan zitzaketen zalantza teoriko eta praktikoei erantzuteko eta horiek argitzeko.

5 laguntza

Ekitatearen aldeko ekintza estrategikoko plana ezartzea + ebaluazioa

1 laguntza

Genero-ekitatearen aldeko ekintza estrategikoko plana ezartzea



1.5.
AFRIKA

1.5.1.
Emandako funtsen % 25 Afrikako kontinenterako erreserbatzea

2025ean, Afrikarako funtsak emandako funts guztien % 25,36 izan ziren. Hirugarren urtez jarraian, funts banagarrien % 25 Afrikako ekimenetara bideratzeko helburua gainditu genuen. Hala ere, ehuneko horiek jaitsi egin dira iazko datuarekin alderatuta.

Lorpen hori, berriz ere, euskal GGKEek eta bertako bazkideek gaitasunak indartzeko eta proposamenen kalitatea hobetzeko egindako lanari esker lortu zen, bai eta Hegoaldeko herrialdeetan egiten diren deialdietan Afrikarako funtsen ehuneko espezifiko bat erreserbatzeko ekintza positiboei esker ere.

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Ekimen kopurua Afrikan	Afrikan emandako zenbatekoa	Afrikarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	60	32.000.000,00 €	16	7.953.451,67 €	% 24,85
PRE	24	4.745.972,11 €	13	2.599.961,54 €	% 54,78
EHE	5	3.999.998,90 €	2	1.599.999,45 €	% 40,00
ZUZ	10	1.701.522,00 €	7	1.012.222,23 €	% 59,49
IZE	23	3.945.000,00 €	5	969.000,00 €	% 24,56
PGM EJ	4	3.999.994,94 €	1	798.027,32 €	% 19,95
Besteak	18	524.568,75 €	-	-	-
GUZTIRA	**170**	**58.891.036,75 €**	**44**	**14.932.662,21 €**	**% 25,36**

% 25,36



AFRIKA (3/1)

44 EKIMEN ONARTU ZIREN

+14,9 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Burkina Faso

Eskola seguruak: larrialdiak kaltetutako haurrentzako kalitatezko hezkuntzarako sarbide segurua birgaitzea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Kamerun

Bakea elkarrekin eraikiz, arbeletik komunitateraino: gatazkak prebenitzeko bidea.

→ **125.180,12 €** - PRO K1

Doualako Bois de Singes auzotik lekualdatutako emakumeen elikadurarako, osasunerako eta ahalduntzerako eskubidea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Burundi

Neskatoen eta mutikoen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta haren aurreko erantzuna, bereziki sexu- eta genero-indarkeriari dagokionez, Kirundon eta Butereren. II. fasea.

→ **600.000,00 €** - PRO K

Ruanda

Ruandako emakumeen gaitasun sozioekonomikoak indartzea, familia-nekazaritzaren eta mikrofinantzaketaren bidez. II. fasea.

→ **600.000,00 €** - PRO K1

Umugore N 'Ibidukikije: emakume kooperatibistak krisi klimatikoaren eta indarkeria matxistaren aurrean ahalduntze-prozesuen buru dira Kamonyin.

→ **597.177,18 €** - PRO K1

Zimbaue

Klima- eta ingurumen-justizia, emakume nekazarien proposamena, agroekologian eta nekazarien eskubideetan oinarrituta. II. fasea.

→ **599.904,27 €** - PRO K1

Niger

Haurren eskubideak babestea Ouallamen, tokiko lidergo humanitariotik eta genero-ikuspegitik.

→ **200.000,00 €** - PRE

Tillaberiko krisi humanitarioek eragindako neskatilak eta nerabeak babestea eta autonomizatzea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Txad

Mendebaldeko Logoneko landa-eremuko emakumezko liderrak, genero-ekitatean eta ura izateko giza eskubidean aurrera egiteko lanean.

→ **593.490,81 €** - PRO K1

Elikadura-sistema iraunkorrak eta landa-eremuko emakumeen eskubideen babesa Chari eta Mayo Lemie departamentuetan.

→ **560.387,93 €** - PRO K1

Boli Kosta

Haurrak eta gazteak haurren lanaren aurka babestuz eta haiek ahalduntzen lagunduz. II. fasea.

→ **600.000,00 €** - PRO K1

JEPEDI: demokrazia inklusiboarekin konprometitutako LGBTIQ+ gazteak.

→ **10.000,00 €** - ZUZ


Mozambike

Ur-hornidura eta saneamendua Massacako egoera ahulenean dauden herritarrentzat.

→ **146.200,00 €** - PRO K1

Indarkeriatik bizirik atera diren emakume eta neskatoentzako babes-mekanismoak, gizarte-kohesioa eta zerbitzu espezializatuetarako sarbidea indartzea.

→ **199.999,00 €** - PRE



Niger, Burkina Faso eta Txad

Laguntza humanitarioa Sahelen kokatzea bultzatzea.

→ **120.000,00 €** - ZUZ

AFRIKA (3/2)

44 EKIMEN ONARTU ZIREN

+14,9 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Etiopia

Erantzun humanitarioa Tigrayn, eskubideen, babesaren eta lotura hirukoitzaren ikuspegitik, sexu- eta genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeentzat eta eragindako komunitateentzat.

→ **199.999,98 €** - PRE

Estrategia humanitarioa Tigray eta Amharako gatazka-testuinguruetan: osasuna, eskubideak eta erresilientzia sexu- eta genero-indarkeriaren aurrean, genero-ikuspegiarekin eta lotura hirukoitzarekin.

→ **800.000,00 €** - EHE

Nigeria

Lidergoa, berdintasuna eta erresilientzia Bornon eta Adamawan, ahalduntze komunitarioaren bidez testuinguru humanitarioetan.

→ **199.973,00 €** - PRE

Hainbat herrialde

Afrikako aktibisten eta gizarte-mugimenduen gaitasunak indartzea eta haiei laguntzea.

→ **250.000,00 €** - ZUZ

Afrikako mugimendu feministen antolaketa eta erresilientzia babestea, zaintza kolektiboaren eta justizia konpontzailearen ikuspegiaren bidez.

→ **200.000,00 €** - ZUZ

Ginea

Landa-inguruneko emakumeak, Labéko hiri-inguruneko eta landa-eremuko udalerrietan nekazaritza-ekonomia jasangarritasunaren hazkunde komunitarioaren aldaketarako eragile gisa.

→ **550.145,55 €** - PRO K1

Ginea Bissau

Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzea, osasunaren arloko lankidetza teknikoaren bitartez. 2025eko plangintza.

→ **550.000,00€** - IZE

Ekuatore Ginea

LGBTI+ indarkeriaren biktima diren emakumeak eta pertsonak ahalduntzeko estrategia integrala Bioko uhartean.


→ **324.943,40 €** - PRO K1

Malawi

Ur-, saneamendu- eta higiene-eskubidea, klima-aldaketarako sistema erresilienteen bidez, eskoletan eta landa-komunitateetan. III. fasea.

→ **599.808,45 €** - PRO K1





Kolonbia, Guatemala, Nikaragua, Mexiko eta Kenya

Nazioarteko komunitatearen eragina, Afrikan eta Latinoamerikan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonei, erakundeei eta komunitateei babes integrala emateko.

→ **75.000,00 €** (*) - IZE

Kongoko Errepublika Demokratikoa, Sudan, Etiopia, Kenya, Eritrea, Libia, Mozambike, Sri Lanka, Venezuela eta Kolonbia

Indarkeria murrizteko eta gatazkak prebenitzeko elkarrizketa politikoa ahalbidetzea.

→ **97.222,23 €** (*) - ZUZ

(*) Zifra Afrikara bideratzen den dirulaguntzaren zenbatekoari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa..

AFRIKA (3/3)

44 EKIMEN ONARTU ZIREN

+14,9 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

SEAD

Saharararrentzako elikadura-segurtasunerako estrategia.

→ **199.989,63 €** - PRE

Ingurumen Osasuneko Unitateak saharar errefuxiatuen kanpalekuetan ematen dituen zerbitzuak indartzea eta zabaltzea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Oinarrizko elikagai-saskia indartzea eta larrialdiko erantzuna ematea saharar errefuxiatuen kanpalekuetako banaketa-gabezien aurrean.

→ **200.000,00 €** - IZE

Uganda

Osasunerako sarbidea eta estaldura indartzea, Kyakan errefuxiatutako biztanleriaren sexu-indarkeriari eta generoan oinarritutako indarkeriari erantzunez, lotura hirukoitzeko ikuspegiarekin.

→ **200.000,00 €** - PRE

Gaixotasunen tratamendua eta prebentzioa genero-ikuspegiarekin, giza eskubideak eta ingurumen-babesa komunitate errefuxiatuentzat eta tokikoentzat.

→ **200.000,00 €** - PRE

Kongoko Errepublika Demokratikoa

Indarkeriak, lekualdatzeak eta krisi humanitarioak eragindako populazio kalteberen osasunerako eta sexu- eta ugalketa-eskubideetarako sarbidea bermatzea Benin.

→ **200.000,00 €** - PRE

Laguntza psikosoziala Kabareko lurraldean (Hego Kivu) desplazatutako, itzulitako eta kaltetutako biztanleentzat.

→ **199.999,93 €** - PRE

Gizarte-erakunde komunitarioak indartzea, aldaketaren teoria eta ingurumena garapen-ekintzetan txertatzeko.

→ **72.000,00 €** - IZE

Senegal

Karibu: giza eskubideak defendatzen dituztenenganako babesa eta gizarte zibilaren sustapena ikuspegi panafrikanistatik. II. fasea.

→ **551.974,49 €** - PRO K1

Jigeen Ci Kaw. Aldatzen duten ahotsak: emakumeen eta gazteen bidea gizarte- eta ingurumen-justiziarantz.

→ **421.457,17 €** - PRO K1

Genero eta feminismo kontzeptuak desmitifikatzen eta onartzen laguntzea.

→ **150.000,00 €** - ZUZ

Senegalgo erakunde sozialek garapen-proiektuen kudeaketa, formulazioa eta jarraipena egiteko dituzten gaitasunak indartzea.

→ **72.000,00 €** - ZUZ

Mali

Bamako barrutiko VI. komunako emakume eta nerabeek osasunerako eta sexu- eta ugalketa-eskubideetarako duten eskubidea gauzatzen laguntzea.


→ **503.905,00 €** - PRO K1

Nekazaritza-sistema ekologikoa, inklusiboa eta erresilientea sendotzea klima-aldaketaren aurrean.

→ **578.877,30 €** - PRO K1

Bamako barrutian lekuz aldatutako biztanleen bizi-baldintzak hobetzea.

→ **799.999,45 €** - EHE



Ghana, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kenya eta Tanzania

Afrikan funts feministak eta emakumeenak ikusarazteko eta indartzeko estrategia kolektiboak.

→ **185.000,00 €** - ZUZ

Mali, SEAD, Senegal eta Mauritania

Emakumeen bake-agenda sustatzea.

→ **798.027,32 €** - PGM (*)

1.5.2.
Agente afrikarren gaitasunak indartzeko ikasguneak sortzea

Beren testuinguru eta gaietan Afrikan erreferentzia diren erakunde sareekin-aliantzak sortzearen aldeko apustua egiten jarraitu genuen, sare horien gaitasunak sendotzen lagunduz era horretan.

Hala, Senegalgo eta Kongoko Errepublika Demokratikoko GGKEen koordinakundeen bidez, gizarte-erakundeen gaitasunak indartzeko esperientziak babestu genituen berriro ere. 2025ean, prestakuntza-saioez gain, eLankidetzatik jaso duten etengabeko laguntzaren irismenari eta eraginari buruzko ebaluazioak egin zituzten bi koordinakundeek.

Ekimenak Euskadin, agente afrikarrekin

Afrikako Egunaren ospakizuna

Afrikako errealitateak agerian ipintzeko eta, halaber, afrikar diasporari hurbiltzea eta harekin topo egitea sustatzeko, migratzaileen Bilbo eta Gasteizko elkarteei lagundu diegu Afrikaren Eguna dela-eta jarduerak antolatzeko prozesuan (maiatzaren 25ean da).

Afrikaldia: Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia

Kultura Bendera elkartearekin eta Manuel Iradier elkarte afrikanistarekin elkarlanean aritu ginen, *Afrikaldia* Afrikar Zinemen Euskal Jaialdiaren V. edizioa antolatzeko Gasteizen azaroan. Nazioarteko zinema-jaialdia izateaz gain, zinemaren eta kulturaren industriaren sektorea elkartzeko kultura-gunea ere bada.

Atal ofizialean, Afrikako hamazazpi herrialdetako hamabi lan eskaini zituzten, eta 2.156 lagunek hainbat jarduerez gozatzeko aukera izan zuten. Aipatzekoak dira Souleyman Cissé zinemagile maliarraren omenaldia eta Izaskun Arrue Kultur Elkartearekin egindako aliantza.

Topaketak Afrikako diasporarekin

Defendatzaileak Babestuz defendatzaileak babesteko Afrikako esperientziak jardunaldien barruan –ikus 1.3.3. atala– hiru topaketa tematiko antolatu genituen bisitatu gintuzten defendatzaileen eta Euskadin bizi den diaspora afrikarraren artean. Senegalgo eta Kongoko Errepublika Demokratikoko giza eskubideen egoerari eta Afrikako feminismoen egoerari buruz hitz egin genuen. Guztira, 127 pertsonak parte hartu zuten (43 emakume eta 78 gizon).



Ekimenak Afrikako herrialdeetan

Afrikako lankidetza bultzatu, indartu eta zabaltzeko apustua egin genuen, baita zuzeneko dirulaguntzen bitartez ere. 2025ean, Afrikako gazteei laguntzeko bi ekimen nabarmendu dira:

Boli Kostako demokrazia inklusiboarekin konprometitutako LGTBIQ+ gazteak

Boli Kostako LGBTIQ+ GROMO erakundeari laguntzeko ekimen pilotu honen helburua kolektiboaren giza eskubideen egoera eta giro soziala ezagutzea izan zen —baita erresistentziak eta gorroto-adierazpenak ere—, bai eta kideen gaitasunak indartzea ere hauteskunde-prozesuan inplika daitezen.

Proiektuaren helburu nagusiak izan ziren LGBTIQ+ gazte liderrak prestatzea, 2025eko urriaren 25eko presidentetzarako hauteskundeei begira haien parte-hartze politikoa indartzeko, eta LGBTIQ+ komunitateak sentsibilizatzea prozesu demokratikoan parte har dezaten sustatzeko.

Gazte aktibisten gaitasunak indartzea

Injustiziek, errepresioak eta gatazkek —herrialde demokratikoei ere eragiten diete— baldintzatutako Afrikako testuinguruan, gazte aktibistek funtsezko rola izaten jarraitzen dute eskubide eta askatasunen defentsan. Lurralde askotan, lidergo gazteek eta mugimendu sortu berriek ezinbesteko indarra ematen diote erresistentziari eta gizarte-saretzeari.

Ekimenak, hain zuzen ere, gazteria aktibista hori indartu nahi du, hobeto antolatzeko, baliabideak mobilizatzeko eta pentsamendu kritikoa modu indibidual eta kolektiboan eraikitzeko tresnak emanez. Horren bidez, proiektuaren helburua agenda panafrikar adostu bat sendotzea da, Afrikki sareak identifikatutako erronka nagusiak bilduko dituena; hain zuzen ere, gazte liderrek sare horretan nagusitasunezko rola dute.

1.6. EKINTZA HUMANITARIOA. GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA-EGOERA BATZUK

1.6.1. Emandako funtsen % 9 gatazkei eta beste indarkeria-egoera batzuei begirako ekimenetarako erreserbatzea

2025ean, gatazkei eta beste indarkeria-egoera batzuei begirako ekintza humanitarioko ekimenetarako funtsak emandako funts guztien % 15,99 izan ziren.

Ekimen horietako batzuek erantzuna ematen diete nazioarteko laguntza nahikoa jasotzen ez duten edo laguntzarik ez duten herriei, eta krisi larriak, luzeak eta ahaztutakoak bizi dituztenei (Europar Batasunaren irizpideen arabera).[1]

Aurten, zuzeneko hiru laguntza nabarmentzen dira eremu humanitarioan. Alde batetik, UNRWAren bidez Libanon errefuxiatuta dauden haur palestinarren hezkuntzarako sarbidea erraztu da; bestetik, Ilargi Gorri Sahararrari emandako dirulaguntza baten bidez, Tindoufeko kanpalekuetan dauden errefuxiatu sahararren elikadurarako eskubidea bermatzen lagundu da; eta, era berean, BLB/ACPP eta DIKOri lagundu zaie, Sahelen sistema humanitarioan aldaketa bultzatzeko helburuarekin, tokiko lidergoaren inguruan egituratzera bideratuta.

1.6.2. Gosea gerra-arma gisa

Acción contra el Hambre erakundeari emandako dirulaguntza izendunaren bidez, elikadura krisiak prebenitzea eta gosea gerra arma gisa erabiltzea salatzea helburu duten bi ekimen babesten ditugu.


Otsailean, elikadura krisiei eta goseteei aurrea hartzeko nazioarteko mintegi batean parte hartu genuen. Bilbon elkartu ziren FAOko eta Elikagaien Munduko Programako (WFP) goi mailako ordezkariak, Elikagaien Krisien aurkako Sare Globalaren esparruan, administrazio publikoetako, erakunde espezializatuetako eta unibertsitateetako ordezkariekin batera. Mintegiaren harira, intzidentzia politikorako bilera bat ere egin zen Eusko Legebiltzarreko Berdintasun eta Garapenerako Lankidetza Batzordearekin eta Kolonbiako bake prozesuaren aldeko taldeartekoarekin.

Gai horretan sakontzeko, EHUren Udako Ikastaroen baitan beste topaketa bat egin zen irailaren 8an eta 9an Donostian, *Gaza eta Kolonbia. Gosea gerra arma gisa eta elikadura segurtasuna bakerako bide gisa* izenburupean. Jardunaldietan, unibertsitateko, Nazio Batuetako, gobernuz kanpoko erakundeetako eta administrazio publikoetako ordezkariek, ikasleekin batera, esperientziak eta hausnarketak partekatu zituzten. Helburua izan zen gatazka testuinguruetan elikadura krisiak prebenitzeko eta arintzeko estrategiak aztertzea, eta elikadura segurtasunak bakearen eraikuntzan duen ekarpena nabarmentzea.

1 Ehuneko horretan ez dago sartuta NBEren Larrialdietan Erantzuteko Funts Zentralari (CERF, ingelesezko sigletan) emandako dirulaguntza izenduna, hondamendi naturalen ondoriozko zein gatazken testuinguruekin eta beste indarkeria-egoera batzuekin lotutako larrialdi humanitarioei erantzuten dielako.

Ekintza humanitarioa

GUZTIRA 9.415.971,01 €



Afrika
17 ekimen - 4.519.960,99 €

Asia
8 ekimen - **2.849.999,99 €**

Hego Amerika
5 ekimen - **1.446.010,03 €**

Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea
3 ekimen - **600.000,00 €**

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Gatazketan gauzatutako ekimen kopurua	Gatazketan emandako zenbatekoa	Gatazketarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRE	24	4.745.972,11 €	24	4.745.972,11 €	% 8,06
EHE	5	3.999.998,90 €	5	3.999.998,90 €	% 6,79
ZUZ	10	1.701.522,00 €	1	120.000,00 €	% 0,20
IZE	23	3.945.000,00 €	3	550.000,00 €	% 0,93
Besteak	108	44.498.543,74 €	-	-	-
GUZTIRA	**170**	**58.891.036,75 €**	**33**	**9.415.971,01 €**	**% 15,99**

GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK (2/1)

33 EKIMEN ONARTU ZIREN

+9,4 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Kamerun

Doualako Bois de Singes auzotik lekualdatutako emakumeen elikadurarako, osasunerako eta ahalduntzerako eskubidea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Etiopia

Tigrayn kokatutako erantzun humanitarioa: eskubideak, babesa eta lotura hirukoitza sexu-indarkeriatik eta generoan oinarritutako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeentzat eta eragindako komunitateentzat.

→ **199.999,98 €** - PRE

Estrategia humanitarioa Tigray eta Amharako gatazka-testuinguruetan: osasuna, eskubideak eta erresilientzia sexu- eta genero-indarkeriaren aurrean, genero-ikuspegiarekin eta lotura hirukoitzarekin.

→ **800.000,00 €** - EHE

Libano

Ama-haurren osasuna indartzea Palestinako emakume errefuxiatuentzat, funtsezko zerbitzuen bidez.

→ **200.000,00 €** - PRE

Hegoaldeko eta Libano mendiko hamar kokaleku informaletan emakume errefuxiatuentzako laguntza medikoa, psikologikoa eta hezitzailea.

→ **199.999,99 €** - PRE

Larrialdiak eragindako Palestinako haur errefuxiatuen hezkuntzarako eskubidea bermatzea.

→ **250.000,00 €** - IZE

Nigeria

Lidergoa, berdintasuna eta erresilientzia Bornon eta Adamawan, ahalduntze komunitarioaren bidez testuinguru humanitarioetan.

→ **199.973,00 €** - PRE

Mali

Bamako barrutian lekuz aldatutako biztanleen bizi-baldintzak hobetzea.

→ **799.999,45 €** - EHE

Mozambike

Indarkeriatik bizirik atera diren emakume eta neskatoentzako babes-mekanismoak, gizarte-kohesioa eta zerbitzu espezializatuetarako sarbidea indartzea.

→ **199.999,00 €** - PRE

Kongoko Errepublika Demokratikoa

Beni osasun-eremuan indarkeriak, desplazamenduak eta krisi humanitarioak kaltetutako biztanle zaurgarrienek osasunerako eskubidea eta osasun sexual eta ugalketa-eskubideak bermatuta izatea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Laguntza psikosoziala Kabareko lurraldean (Hego Kivu) desplazatutako, itzulitako eta kaltetutako biztanleentzat.

→ **199.999,93 €** - PRE

Palestina

Larrialdiko erantzuna eta herritarren eskubideak babesteko erantzuna Gazako Zerrendan aurrekaririk ez duen krisi humanitarioaren aurrean.

→ **200.000,00 €** - PRE

Zisjordaniako eta Ekialdeko Jerusalemgo biztanle palestinar kalteberen babes osoa, erresilientzia eta giza eskubideen babesa sustatzea.

→ **200.000,00 €** - PRE

Lotura lokalizatua, okupazioa jasaten duten Nablusen hego-ekialdeko palestinarren eskubideak eta duintasuna modu integralean babesteko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera.

→ **800.000,00€** - EHE

Siria

Palestinako errefuxiatu ahulenen erresilientzia sustatuz, eskudiruzko laguntzaren bidez.

→ **200.000,00 €** - PRE

Ahalduntze-estrategiak, Palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasuna murrizteko. II. fasea.

→ **800.000,00 €** - EHE


Uganda

Osasunerako sarbidea eta estaldura indartzea, Kyakan errefuxiatutako biztanleriaren sexu-indarkeriari eta generoan oinarritutako indarkeriari erantzunez, lotura hirukoitzeko ikuspegiarekin.

→ **200.000,00 €** - PRE

Gaixotasunen tratamendua eta prebentzioa genero-ikuspegiarekin, giza eskubideak eta ingurumen-babesa komunitate errefuxiatuentzat eta tokikoentzat.

→ **200.000,00 €** - PRE



GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK (2/2)

33 EKIMEN ONARTU ZIREN

+9,4 MILIOI € BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN

Kolonbia

Ekinean ari diren komunitateak: gatazka armatuagatiko arriskuen aurrean babes kolektiborako estrategiak Arauca departamentuan.

→ **199.999,92 €** - PRE

Laguntza humanitarioa Amba Patatoren itzulera seguru eta duinerako, indarkeriaren ondorioz kanporatua izan zen lurralde indigenara berriro integratzeko bermeekin.

→ **200.000,00 €** - PRE

Haur eta nerabeen babesa Araucan: prebentzioa errekrutatzeari, sexu-indarkeriari eta generoan oinarritutako indarkeriari dagokienez, gatazka armatuaren testuinguruan.

→ **146.010,66 €** - PRE

Kolonbiatik, Panamatik eta Costa Ricatik igarotzen diren eta mugikortasun behartuan dauden pertsonentzako oinarri humanitarioa duen erantzun integrala eta artikulatua, ikuspegi diferentzial eta intersekzionalarekin.

→ **799.999,45 €** - EHE

Gosea, gatazka eta bakea. Elikagaien segurtasuna babestea, lotura hirukoitzeko ikuspegiarekin: arlo humanitarioa, garapena eta bakea.

→ **100.000,00 €** - IZE

Mexiko

Mexikoko mugen arteko mugikortasun behartuan dauden pertsonei babes osoa eta komunitarioa ematea, eskubideen, generoaren eta adiskidetzearen ikuspegitik.

→ **200.000,00 €** - PRE

Guatemala

Eskubideak eta kontzientzia kritikoa indartuz: erantzun humanitarioa Petenen eta migratzaileen narratibak Euskadin.

→ **200.000,00 €** - PRE

Costa Rica

Mugikortasun egoeran dauden emakume nikaraguarren eta haien familien babes-arrakalak murriztuz.

→ **200.000,00 €** - PRE

Niger

Haurren eskubideak babestea Ouallamen, tokiko lidergo humanitariotik eta genero-ikuspegitik.

→ **200.000,00 €** - PRE

Tillaberiko krisi humanitarioek eragindako neskatilak eta nerabeak babestea eta autonomizatzea.

→ **200.000,00 €** - PRE

SEAD

Saharar errefuxiatuen elikadura-segurtasunerako estrategia.

→ **199.989,63 €** - PRE

Ingurumen Osasuneko Unitateak saharar errefuxiatuen kanpalekuetan ematen dituen zerbitzuak indartzea eta zabaltzeai.

→ **200.000,00 €** - PRE

Oinarrizko elikagai-saskia indartzea eta larrialdiko erantzuna ematea saharar errefuxiatuen kanpalekuetako banaketa-gabezien aurrean.

→ **200.000,00 €** - IZE

Burkina Faso


Eskola seguruak: larrialdiak kaltetutako haurrentzako kalitatezko hezkuntzarako sarbide segurua birgaitzeat.

→ **200.000,00 €** - PRE

Niger, Burkina Faso eta Txad

Laguntza humanitarioa Sahelen kokatzea bultzatzea.

→ **120.000,00 €** - ZUZ



1.6.3.
Ikasketa Humanitarioen Zentroa Tigrayn

Ekainean, Egoaizia erakundearen eta 4YBIN Etiopiako bazkidearen ordezkariek gure egoitza bisitatu zuten, eta bi erakundeek gure eta Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin Mekelleko Unibertsitatean (Tigray eskualdean) Ikasketa Humanitarioen Zentro bat sortzeko garatzen duten proiektuaren aurrerapenak partekatu zizkiguten. Tigray eskualdean behin eta berriz gertatzen dira gatazkak eta hondamendi naturalen ondoriozko krisi humanitarioek bereziki eragiten die. Ekimen estrategikoa da, Tigrayn eta Afrikako Adarrean ekintza humanitarioa profesionalizatzeko helburua duena. Mekelleko Unibertsitatean sendo errotuta dago, eta ezagutza humanitarioaren burujabetza du ardatz.



Ekimenaren aurrerapen nagusiak

- Curriculuma garatzea.
- Eragile humanitarioekin prestakuntza eta trukea.
- Zentroaren ikusgarritasun instituzionala.
- Tokiko profesionalak pixkanaka irakasle gisa sartzea.
- Materialen lanketa parte-hartzailea.

1.6.4.
Trebakuntza eta esperientziak trukatzea

Klima-krisiaren, gatazken eta desplazamenduen arteko lotura

Azterlan bat egin genuen klima-aldaketaren, gatazken eta joan-etorrien arteko erlazioei buruz, bai eta ingurumen-iraunkortasunari eta esku-hartze humanitarioen bake-eraikuntzari buruz ere. Azterlana Gatazkei eta Ekintza Humanitarioei buruzko Ikerketarako Institutuak (IECAH) egin zuen, eta eLankidetzak 2019-2025 bitartean finantzatutako esku-hartzeen berrikuspena, elkarrizketak eta GKEei egindako inkesta bat konbinatu zituen. Horri esker, ekintza humanitarioan lagundutako esku-hartzeetan ingurumen-osagaia txertatzeko aurrerapenak eta erronkak identifikatu ahal izan ziren.

Azaroan ekintza humanitarioaren inguruko prestakuntza eta esperientzien trukerako zazpigarren gunea egin genuen, hain zuzen ere klima-aldaketaren, gatazken eta joan-etorrien arteko lotura hori ardatz hartuta. Gunea bi jardunalditan garatu zen. Lehenengo jardunaldian, Gerardo Carballok (IECAHren aholkulari independentea) ikerketaren aurkikuntza nagusiak aurkeztu zituen eta adituekin eztabaidatu zen; bigarrenak, berriz, analisian sakondu zuen, ACNUR, Farmamundi eta Mundubakean erakundeen esperientziak partekatu zituen eta gomendioen zirriborroa kolektiboki berrikusi zuen. Guztira, 80 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, aurrez aurre zein modu birtualean.

Subiranotasun humanitarioa Afrikan

Irailean, prestakuntza birtualeko gune bat antolatu genuen, subiranotasun humanitarioaren kontzeptuan sakontzeko eta Afrikan praktikan nola jartzen den jakiteko, Kenya, Niger, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eta Etiopiako lau erakunderen esperientzien bidez.

Fernando Almansa aholkulari humanitarioak dinamizatu zuen saioa, eta honako helburu hauek izan zituen: esperientzia horiek aztertzea, etorkizuneko garapen-aukerak eztabaidatzea, biztanleriaren deskolonizazio- eta zentraltasun-ikuspegietatik abiatuta, eta komunitate humanitario globalaren barruan esparru kontzeptual eta praktiko hori zabaltzen laguntzea. Guztira, 74 erakunde humanitariotako 88 pertsonak parte hartu zuten, ikasleekin, ikertzaileekin eta gaian interesa duten beste pertsona batzuekin batera.

Ikerketa

Saioa

1.7.
GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

1.7.1.
Emandako funtsen % 13 Euskadi ekintzak egiteko erreserbatzea



Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Euskadin gauzatutako ekimen kopurua	Euskadin emandako zenbatekoa	Funtsak Euskadin, emandako funtsen aldean
PRO K3	22	6.673.980,05 €	22	6.673.980,05 €	% 100,00
GBA	11	344.000,00 €	11	344.000,00 €	% 100,00
IZE	23	3.945.000,00 €	10	1.583.000,00 €	% 40,13
BEK	4	90.600,00 €	4	90.600,00 €	% 100,00
ZUZ	10	1.701.522,00 €	1	100.000,00 €	% 5,88
PGM EJ	4	3.999.994,94 €	4	480.354,32 €	% 12,01
Besteak	96	42.135.939,76 €	-	-	-
GUZTIRA	**170**	**58.891.036,75 €**	**52**	**9.271.934,37 €**	**% 15,74**

1.7.2.
(H)ABIAN 2030 estrategiaren ezarpena

VIII. Heziketa Topaketa: Arrazakeriaren aurkako begirada eta begirada dekoloniala hezkuntzan

Urriaren 24an, Heziketa Topaketaren zortzigarren edizioa egin genuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin. Espazioak hezkuntzako eta lankidetzako eragileak bildu zituen, bai gizarte zibilekoak, bai erakunde publikoetakoak, arrazakeriaren aurkako hezkuntza eta hezkuntza dekoloniala bultzatzeko esperientziak partekatzeko; ez bakarrik pertsona arrazializatuei eragiten dieten diskriminazioei eta indarkeriei aurre egiteko, baita arraza- eta kolonia-hierarkiak betikotzen dituzten narratiba historiko eta kulturalak desegiteko ere.

Heziketa Topaketaren esparruan honeko materiala egin zen:

Gida



Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren VIII. jardunaldiak: komunitate-eraikuntzaren erronkak gizarte-eraldaketan

Apirilaren 3an, gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko zortzigarren jardunaldiak egin genituen Donostian. Urtero bezala, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Hegoa-Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak antolatu zituzten jardunaldiak.

Aurreko edizioan hasitako ziklo berri baten ondoren, (H)ABIAN 2030 Estrategiaren indar-ideia bakoitza gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren egungo erronkekin lotzen da. Aurreko urteko jardunaldia erakundeen eta gizarte-mugimenduen arteko lankidetzak dakartzan erronketan oinarritu zen; aurten, (H)ABIAN 2030 estrategiaren eskubideen ikuspegitik gizartea eraldatzeko eraikuntza komunitarioan jarri zen arreta.

Topaketan 100 pertsona inguru bildu ziren, eta hasierako elkarrizketa Maider Elortegi Uriarte eta José Luis Casadevanteren eskutik izan zen. Maider Elortegi Uriarte herri- eta komunitate-hezkuntzan aditua da, esperientzia handia du antolaketa-prozesuetan eta hezkuntza-programak sortzen testuinguru ahuletan; eta José Luis Fernandez Casadevante "KOIS" soziologoa eta elikadura-burujabetzan aditua da, hiri-nekazaritzako proiektuetan trantsizio ekosozialeko eta aktibistako ekimenak bultzatzen diharduena. Era berean, IIFACe, Kaleko Afari Solidarioak, SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta Cala Kolektiboaren esperientziak aurkeztu ziren, eta gogoeta kolektiborako guneak egin ziren.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan

2025ean Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan berriz lankidetzan aritu ginen Gazteria Zuzendaritzarekin batera.

Zehazki, 51 gaztek (% 81 emakumeak) parte hartu zuten esperientzian 10 euskal erakunderen eta bederatzi herrialdetako 21 toki-erakunderen bidez.

Inaugurazio-hitzaldiak

Esperientzien mahaia



1.7.3.
Ignacio Ellacuría Saria

Martxoan, Imanol Pradales lehendakariak Ignacio Ellacuria 2024 Saria eman zion UNRWAri, Palestinako errefuxiatuekin egindako lanagatik eta justizia- eta elkartasun-balioekin bat etortzeagatik. Oroba Al Mousa UNRWA Jordaniako Hezkuntza-programaren arduradunak jaso zuen saria agentziaren ordezkari gisa.

2025ean ez zen sariaren beste edizio baterako deialdirik egin.



UNRWArekin, Palestinako gizartearekin, herritarrekin eta beste gobernuekin elkarlanean jarraituko dugu. Bizi ditugun garai nahasietan lankidetzan eta elkartasunean sinesten dugu.

Imanol Pradales Gil, lehendakaria

1.8.
EZAGUTZAREN ETA IKASKUNTZAREN KUDEAKETA

1.8.1.
Lankidetza deszentralizatuari buruzko urteko txostena


Martxoan Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) Parisen aurkeztu genuen 2024ko lankidetza deszentralizatuaren txostena. Dokumentuak 2018-2022 aldiko estatu azpiko eta tokiko gobernuen garapenerako laguntza ofizialaren zifrak erakusten ditu, eta hiri emaileen munduko lehen mapa aurkezten du, udalerriz gaindiko 650 hiri eta 117 erakunde identifikatuz 12 herrialdetan, gehienak Europakoak.

Txostenaren ondorio nagusiak

+ Garapenerako Laguntza Ofizial Deszentralizatuak (GLOD) errekorra lortu zuen 2022an. Argitaratutako azken datuek erakusten dute 3.534 milioi dolarreko ekarpena egiten diola garapenaren mundu mailako finantzaketari; aurreko urtearekin alderatuta, beraz, igoera % 16ko igoera gertatu da (batez ere Ukrainako krisiak bultzatuta).
+ Laguntza deszentralizatua hiriei lotutako GKEen bidez bideratzen da gehienbat.
+ Udal-programak konpromiso global-lokaletan kokatzen dira, ekintza klimatikoa, erosketa arduratsuak, kultura-aniztasuna, sentsibilizazioa edo antzeko politiketan txertatuta.
+ Estatu mailan, 57 milioi dolarreko ekarpena egin zuten 147 hiri emaile identifikatzen ditu txostenak; aurrekontu handiena duten hamabost hirien artean hiru euskal hiriburuak daude. Mapatutako udalaz gaindiko erakundeen artean, lehen bi postuak Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak betetzen dituzte.

Urtean zehar, 2025. txostena egin zen. Txosten horretan, lurralde-ikuspegiak funtsezko prozesuetan txertatzen dira, hala nola 2030 Agendaren eta GJHen kokapenean, garapenerako finantzaketaren erronketan eta giza garapen iraunkorrerako beharrezko lokalizazioan eta orientazioan.

2024ko lankidetza deszentralizatuaren txostena




1.8.2.
Proiektuetarako laguntzen tresnaren ebaluazioa

"Proiektuetarako laguntzak" tresnaren ebaluazio mistoaren helburua da ikaskuntzak, ondorioak eta gomendioak identifikatzea, etorkizunean araudia eguneratu eta hobetzeko. Lan horren bidez, indarrean dagoen esparru juridikora eta eLankidetzaren lankidetza eta elkartasun politikaren helburuetara egokitutako tresna bat garatu nahi da.

Martxoan, ebaluazioa egiteko laguntza teknikoko kontratazioa esleitu genuen lizitazio publiko bidez. Lana ANDAIRA, S. COOP. MAD enpresari adjudikatu zitzaion, 103.455 euroren truke. Kontratazioaren helburua da politika publikoen ebaluazioan aditua den kanpoko talde baten laguntza izatea, ebaluazioaren diseinua eta garapena kalitatezkoak izan daitezen eta emaitzen objektibotasuna indartzeko.

Proiektuen tresnaren ebaluazio mistoaren egutegia honako hau da:



2025ean, lehenengo bi faseak egin dira: I. fasea. Kabinetearen azterketa eta behin betiko proposamen metodologikoa zehaztea, eta II. fasea. Informazioa aztertzea eta jasotzea.

Informazioa aztertzeko eta jasotzeko II. fasea gauzatzeko, ebaluazio-teknika hauek erabili dira: talde fokalak, elkarrizketa sakonak, inkestak eta analisi kuantitatiboa, datu-baseen eta dokumentu estrategikoen analisien bidez.

II. faseko datuak

6 FOKU TALDE

- 4 online, eremu geografiko hauetako tokiko erakundeekin: Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe; Hego Amerika; Afrika eta India.
- 2 presentzial, K1-K2 eta K2-K3 kapituluak eskatzen dituzten erakundeekin.

7 ELKARRIZKETA SAKON

- 6 eLankidetzako langileei.
- 1 Euskadiko GGKEen Koordinakundeari.

224
INKESTA EUSKAL ERAKUNDE ESKATZAILEEI ETA TOKIKO ERAKUNDEEI

1.8.3.
Ekimenen eta prozesuen ebaluazioak

eLankidetzako tresnen esparrua berrikusten laguntzeko, 2025ean ebaluatu beharreko hiru prozesu identifikatu ziren; zehazki, honako hauek:

- Emakumeak ahalduntzea
- Hezkidetza eta metodologia feministak
- Ikuspegi ekosoziala Afrikako ikuspegitik

Kanpoko ebaluatzaileen laguntzarekin garatzen diren hiru ebaluazioak 2025eko azken hiruhilekoan hasi ziren, eta aurreikusten da 2026an hainbat teknika parte-hartzaile gauzatuko direla (elkarrizketak, talde fokalak, etab.), prozesu horietan parte hartzen duten tokiko eta euskal erakundeen ahotsa jasoko dela bermatzeko. Gainera, 2026a amaitu baino lehen, aipatutako estrategia bakoitza indartzeko ondorioak eta gomendioak bilduko dituzten azken txostenak izatea espero dugu, eLankidetza tresnak berrikusten ari den prozesu honen esparruan.

1.9.
KOMUNIKAZIOA ETA KONTUAK EMATEA

EITBrekin lankidetza-hitzarmenarekin aurrera egin genuen. Aliantza estrategiko horren helburua da garapenerako lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak batera bultzatzea.

Komunikazio-ekintza hauek egin ziren 2025ean zehar:

+ Norte-Sur podcastaren hirugarren denboraldiko bost atal eskaini ziren. Bertan, eLankidetzak babesten dituen gai nagusiak lantzen dira, eta laguntza ematen diegun pertsona eta erakundeen ahotsa entzun daiteke horietan.

+ Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globalerako programari, AKUALi, Euskal Lankidetza Publikoaren Atariari eta Erdialdeko Amerikako migrazio-krisiei buruzko ikus-entzunezko eta soinuzko sentsibilizazio-piezak irratian, telebistan eta Interneten zabaltzea.

+ Abenduan, Gabriel Arestiren "Nire Aitaren Etxea" olerkian oinarrituta, Euskadi Solidarioa atzo, gaur eta beti kanpaina digitala zabaldu zen, elkartasuna euskal gizartearen balio nagusi gisa aldarrikatzeko.

Era berean, Burutü enpresarekin komunikazio estrategia berria lantzen jarraitzen dugu. Enpresa horrek egin zuen eLankidetzaren egoeraren diagnostikoa eta analisia kanpo komunikazio kontuetan.


1.10.
PLANGINTZA

1.10.1.
2025-2026 Bi Urteko Plana abian jartzea

Urte hasieran, eLankidetzako Kontseilu Errektoreak 2025-2026 Bi Urteko Plana onartu zuen, hurrengo bi urteetarako plangintza-esparru gisa.

Plangintza horrek IV. Gida Planean (2018-2024) zehaztutako lehentasunak eta sektoreak luzatzen ditu. Horrez gain, lehenetsitako sektore berri bat gehitu du: Gatazkak Eraldatzea eta Bakea Eraikitzea. Halaber, etorkizunera begira gogoeta egin eta bultzada emateko berrikuntza gisa, Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren eta Ingurumenaren Babesaren gaia ere txertatu du, Trantsizio Ekosozialaren esparruan.

Plangintza operatibo honen helburua trantsiziorako zubi izatea da. Horrela, bere denbora-tartean, beharrezko hausnarketa estrategikoak egingo dira, Eusko Jaurlaritza osoaren eta eLankidetzaren Lankidetza eta Elkartasunerako Urte anitzeko Plangintza zehazteko, 3/2024 Legeak agintzen duen moduan.



1.10.2.
2025-2026rako Afrikako Bide Orria

eLankidetzaren 2025 – 2026rako Afrikako Bide Orria onartu zen, Afrikako gure lan estrategikoa gidatuko duten hausnarketarako eta erabaki estrategikoak hartzeko oinarriak ezartzea helburu duen dokumentu operatiboa.

Plangintzak hainbat beharri erantzuten die: Afrikako funtsezko eragileak identifikatzeari, haien barne-gaitasunak indartzeari, hizkuntza- eta teknika-oztopoak gainditzeari eta gure funtsen % 25 Afrikako kontinentearentzat gordetzen duen ekintza positiboari eusteari. Horiek horrela, honela egituratzen da:

1.10.3.
eLankidetzako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketarako planaren barne-ebaluazioa eta luzapena

2025ean, genero-berdintasunaren aldeko 2021-2024ko antolaketa-aldaketarako planaren barne-ebaluazioa egin genuen, planaren aurrerapen-maila balioesteko. Azterketaren arabera, komenigarria da planaren matrizea sinplifikatzea, adierazle errealistak dituzten ekintzak zehaztea, lidergoak baliabide espezifikoekin esleitzea eta plana bultzatzeaz eta Zuzendaritza Batzordean aldizkako jarraipena egiteaz arduratuko den talde eragile bat sortzea.

Emaitza horiekin, 2025-2027 aldirako dokumentua luzatzea eta eguneratzea erabaki zen, ekintza-matrize berri bat, zehaztutako lidergoak eta generoaren barneko talde bat gehituz, eLankidetzak ekitatearekiko duen konpromisoa indartzeko eta antolaketa-eredu zaintzaileago baterantz aurrera egiteko.

Ardatz estrategikoak

1. ARDATZA.
Hausnarketa eta erabaki estrategikoak hartzea

2. ARDATZA.
eLankidetzaren eta Afrikako kontinenteko eragileen gaitasunak indartzea

3. ARDATZA.
Afrikako kontinentearekin lotutako eragileekin harremanak eta sinergiak eraikitzea

Zeharkako lehentasunak

+ Feminismoak eta emakumeen ahalduntzea
+ Giza eskubideak eta bakea eraikitzea
+ Trantsizio eko-soziala
+ Gazteria





1.11. JARRAIPEN-BIDAIAK


ZUZENDARITZA-BIDAIAK



SEVILLA


Tokiko Garapen Ekonomikoaren VI. Munduko Foroan parte hartzea. *04/01 – 04/04*

Garapenerako finantzaketari buruzko IV. Nazioarteko Konferentzian parte hartzea. *06/30 – 07/03*



URUGUAI

Bakearen Hirien eta Lurraldeen V. Munduko Foroan parte hartzea. *05/02 – 05/04*



ARGENTINA

Lurraldeen, Inpaktu-merkataritzaren eta Lankidetzaren Iberoamerikako Topaketan parte hartzea. *06/11 – 06/14*



KUBA

Bilera instituzionalak, Habanako Garapen Probintzialeko Estrategiari laguntzeko lurralde-garapeneko ekimen pilotua bultzatzeko. *07/21 – 07/25*


07/13 – 07/18 NBEko Goi Mailako Foro Politikoan parte hartzea.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK




09/22 – 09/24 Lankidetza Deszentralizatuak tokiko gobernantzan eta GJHetan duen eraginari buruzko OCDEren tailerretan parte hartzea.

ALEMANIA




09/28 – 10/01 Busan Global Partnership Forum – Garapenerako Eraginkortasunerako Aliantza Globalean parte hartzea.

KOREA




12/08 – 12/10 Cities and Regions for International Partnerships Foroan parte hartzea - Global Gateway tokian tokira egokitzen Foroan parte hartzea.

BELGIKA



1.11. JARRAIPEN-BIDAIAK



EL SALVADOR

Herrialdean lagundutako ekimenen jarraipena.
eLankidetza
01/22 – 01/25

AKUAL - Ertamerika – Euskadi Ur arloko Erakundearteko Programari jarraipena.
eLankidetza eta Euskal Fondoa
12/01 – 12/05



EL SALVADOR ETA COSTA RICA

Jarraipena egin zitzaion NARE - Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programak hartu dituen giza eskubideen defendatzaileen egoerari. - Ikus 1.3.2. atala-.
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza, eLankidetza, Eusko Jaurlaritza eta gizarte-erakundeak
01/25 – 02/03



FRANTZIA

2024ko Lankidetza Deszentralizatuaren Txostenaren aurkezpena eta ELGAko Lankidetza Deszentralizatuaren balioaren aldeko eragina egitea Parisen.
eLankidetza eta ECOPER
03/18 – 03/19




ETIOPIA

Tigrayn Mekelleko Unibertsitatean Ikasketa Humanitarioen Zentro bat sortzeko lagundutako ekimenari jarraipena egitea.
eLankidetza, Egoaizia, Deustuko Unibertsitatea eta Fernando Almansa
02/10 – 02/14




PERU

Herrialdean lagundutako ekimenen jarraipena.
eLankidetza
02/09 – 02/18



SENEGAL ETA BOLI KOSTA

Herrialdeetan lagundutako ekimenen jarraipena.
eLankidetza
03/17 – 03/26



BELGIKA

Europako Foro Humanitarioan parte hartzea.
eLankidetza
05/19 – 05/20

ELANKIDETZA BIDAIA OROKORRAK

06/16 – 06/22

Trantsizioko justiziaren eta memoria historikoaren arloan herrialdean baterako lan-esparrua zehazteko lan-ildoak eta aliantzak identifikatzea.
eLankidetza, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentzia eta kanpoko aholkularia

GUATEMALA



08/12 – 08/15

Latinoamerikako eta Karibeko Emakumeei buruzko XVI. Eskualde Konferentzian parte hartzea.
eLankidetza

MEXIKO



09/15 – 09/16

Errefuxiatuentzako Jesuita Zerbitzuaren mintegian parte hartzea, informazioaren kudeaketari eta inpaktuaren neurketari buruzkoan.
eLankidetza

ITALIA



01/16 – 01/19
10/20 – 10/25

Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globala programaren ezarpenaren jarraipena egin zen.
Osasun Saila, Osakidetza eta eLankidetza


GUINEA-BISSAU



10/08 – 10/17

Herrialdean lagundutako ekimenen jarraipena egitea eta "Babesa eta osasuna indartzea: sexu- eta genero-indarkeria eta sexu- eta ugalketa-osasuna lantzea Ugandako errefuxiatuen testuinguruetan" mintegian parte hartzea.
eLankidetza

UGANDA



11/17 – 11/20

Kubako eta Euskal Herriko eragileak artikulatzen laguntzea, Habanako Garapen Probintzialerako Estrategia ezartzen laguntzeko, eta Ondare Hirien Kudeaketari buruzko Nazioarteko XXI. Topaketan ("Habanako Plana II") parte hartzea.
eLankidetza

KUBA



11/22 – 11/29

Urgent Action Fund – Africa erakundearen Errepublika Feministaren 3. Jaialdian parte hartzea.
eLankidetza


KENYA



1.12.
PERTSONEN KUDEAKETA

Langileak

2025eko abenduaren 31n, eLankidetzako taldea 33 lagunek osatzen zuten: 21 emakumek eta 12 gizonek. Eta lau bekadun.



Laguntzak ematea

2025ean, 58.891.036,75 euro eman genituen laguntzatan, 47 herrialde pobretutan eskubideak gauzatu eta lortzen laguntzeko, eta, halaber, herritar kritikoak sustatzeko Euskadin, giza garapen jasangarriaren, justiziaren eta elkartasunaren alde.

Ikusi datuen azterketa hurrengo kapituluan.



AURREKONTUAREN EXEKUZIOA ETA EMANDAKO FUNTSAK

2





2.1. AURREKONTU-BILAKAERA

2025erako aurrekontua 56.331.629 eurokoa izan zen: Eusko Jaurlaritzak emandako 55.971.110 euro, eta URAk emandako 360.519 euro, uraren kanonaren % 5eko bilketari dagokion zenbatespena.


Martxoaren 4an, Gobernu Kontseiluak kreditu globala[2] –diruzaintzako gerakinen kargura– handitzea onartu zuen, garapenerako lankidetzako laguntzak finantzatzeko, 2,5 milioi euroko zenbatekoan.

2025eko guztizko aurrekontua:

58.831.629 €

2 Kredituaren gehikuntza honela banatu zen: 1 milioi euro ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzetarako eta 1,5 milioi euro garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzetarako.

Urtea	EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontua	eLankidetzaren aurrekontua	eLankidetzaren eta EAEko aurrekontuen arteko erlazioa (%)
2016	11.136.869.798 €	43.026.830 €	% 0,39
2017	11.513.050.603 €	45.165.872 €	% 0,39
2018	11.791.434.211 €	46.533.177 €	% 0,39
2019	12.481.366.402 €	46.968.732 €	% 0,38
2020	12.233.625.126 €	50.005.542 €	% 0,41
2021	13.618.112.690 €	49.723.474 €	% 0,37
2022	14.699.869.209 €	50.505.959 €	% 0,34
2023	15.302.582.495 €	51.725.598 €	% 0,34
2024	15.969.900.384 €	56.286.496 €	% 0,35
2025	**16.477.682.771 €**	**58.831.629 €**	**% 0,36**



2.2.
ELANKIDETZAREN AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

Aurrekontuaren
% 99,10
exekutatu da

	Aurrekontu eguneratua	Aitortutako betebeharrak	Egindako ordainketak	Exekuzioaren %
Langileen gastuak	2.608.439 €	2.405.119,00 €	2.405.119,00 €	% 92,21
Funtzionamendua	1.035.300 €	807.529,00 €	807.529,00 €	% 78,00
Dirulaguntzak	55.112.890 €	54.987.088,88 €	54.312.310,16 €	% 99,77
Inbertsioak	75.000 €	56.611,00 €	56.611,00 €	% 75,48
GUZTIRA	**58.831.629 €**	**58.256.347,88 €**	**57.581.569,16 €**	**% 99,02**

2025eko aurrekontuan, inbertsioen kapituluan 75.000 euroko zuzkidura sartu genuen aplikazio informatiko berriak eragindako gastuari aurre egiteko.

Beraz, instalazioetan eta altzarietan 7.605 euroko inbertsioak egin ziren, eta aplikazio informatikoetan 49.006 euroko inbertsioak. Inbertsio horiek Eusko Jaurlaritzak 2019 eta 2020 ekitaldietan eLankidetzari atxikitako espazioak egokitzeko gehitutako kapitalaren dirulaguntzari dagokion kontu-saileko 81.870 euro epetan antolatuta zituelako egin ahal izan ziren.

Dirulaguntzen partidan, 2025eko aurrekontuan dirulaguntzetarako aurreikusitako 55,1 milioi euroetatik 54,3 ordaindu genituen. Egindako ordainketen artean sartzen dira urteko emakiden lehen ordainketen 23.729.421 euro, aurreko urteetako deialdietako bigarren eta hirugarren ordainketen 30.072.938 euro, 2025eko aurrekontuari dagozkionak; 359.951 euro, 2026an aurreikusitako ordainketei dagozkienak eta 2025ean gauzatu zirenak; eta 150.000 euro, EITBrekin sinatutako hitzarmenari eLankidetzak egindako ekarpenari dagozkionak. Bestalde, epetan antolatu genituen 674.779 euroren ordainketak, 2025erako berrikusi baitziren eta 2026an exekutatuko baitira. Beraz, aitortutako betebeharrak 54.987.089 milioi eurokoak izan ziren.

Horrezaz gain, 2023 eta 2024ko aurrekontuetan aurreikusitako ordainketen 804.907 euro ordaindu ziren, ekitaldi horietan antolatu ziren-eta epeak. Hala, dirulaguntzen kontu-sailetik egindako ordainketen guztizkoa 55.117.217 € izan zen 2025ean[3].

Informazio gehiago nahi izanez gero, eLankidetzaren urteko kontuak hemen ikus daitezke.



3 Zenbateko hori bat dator Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari 2025eko Garapenerako Laguntza Ofizialaren fluxuei buruzko txostenean jakinarazitakoarekin.


2.3. EUSKO JAURLARITZAKO BESTE SAIL, ENTE ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUEN EXEKUZIOA

eLankidetzaren bitartez bideratutako funtsez gainera, Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomo batzuek ere nazioarteko lankidetzako ekintzak egiten dituzte, Garapenerako Laguntza Ofizial gisa zenbatu daitezkeenak.

Saila, entea edo erakunde autonomoa	Zenbatekoa 2025
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila	2.950.644,03 €
Osasun Saila / Osakidetza	1.400.446,13 €
Lehendakaritza - Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia	1.380.000,00 €
Lehendakaritza - Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza	1.166.666,00 €
SPRI - Basque Trade & Investment	511.135,00 €
Justizia eta Giza Eskubideen Saila	348.000,00 €
Hezkuntza Saila	250.000,00 €
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	79.000,00 €
Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila	50.000,00 €
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	18.000,00 €
IHOBE - Ingurumen Kudeatzeko Sozietate Publikoa	7.425,00 €
GUZTIRA	**8.161.316,16 €**

Finantzatutako ekimen bakoitzaren xehetasunak ikusgai daude hemen.

2025ean Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzara bideratutako partida guztien exekuzio osoa 66.417.664,04 eurora iritsi zen (eLankidetzaren 58.256.347,88 euro eta beste sail eta erakundeen 8.161.316,16 euro). Eusko Jaurlaritzak exekutatu duen aurrekontu osoaren % 0,40 da hori.



% 0,40


2.4.
ELANKIDETZAK 2025EAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Kontseilu Errektoreak, martxoaren 14an, dirulaguntza-plan estrategikoa onetsi zuen; bertan, 2025. urterako funts banagarriak sartzen dira.

Berrikuntza gisa, aurten programa-tresna (PGM) gauzatzeko faseko lehen deialdia egin zen, eta lau dirulaguntza esleitu ziren. Era berean, eLankidetzako espezializazio-beken (BEK) lau kategoria tematikoei eutsi zitzaien, genero-bekaren ordez Afrikako lankidetzako beka jarri baitzen, ekintza humanitarioko eta eraldaketa sozialerako hezkuntzako bekez gain.

Hala, funts hauek onartu ziren 2025ean:

Tresna	Emateko aurreikuspena	Emandako zenbatekoa	Exekuzio-maila	%, emandako guztizkoaren aldean
PRO	40.000.000,00 €	39.973.980,05 €	% 99,93	% 67,88
PRO K1	32.000.000,00 €	32.000.000,00 €	% 100,00	% 54,34
PRO K2	1.300.000,00 €	1.300.000,00 €	% 100,00	% 2,21
PRO K3	6.700.000,00 €	6.673.980,05 €	% 99,61	% 11,33
PRE	4.600.000,00 €	4.745.972,11 €	% 103,17	% 8,06
EHE	4.000.000,00 €	3.999.998,90 €	% 100,00	% 6,79
GBA	351.000,00 €	344.000,00 €	% 98,01	% 0,58
ZUZ	2.043.440,31 €	1.701.522,00 €	% 83,27	% 2,89
IZE	3.945.000,00 €	3.945.000,00 €	% 100,00	% 6,70
SAR	15.500,00 €	-	-	-
BEK	90.600,00 €	90.600,00 €	% 100,00	% 0,15
PGM	4.150.000,00 €	4.089.963,69 €	% 98,55	% 6,94
ID	150.000,00 €	89.968,75 €	% 59,98	% 0,15
EX	4.000.000,00 €	3.999.994,94 €	% 100,00	% 6,79
GUZTIRA	**59.195.540,31 €**	**58.891.036,75 €**	**% 99,49**	**% 100,00**



Banatu daitezkeen funtsen exekuzio maila % 99,49koa izan zen. Desbideratze nagusiak programetarako laguntza-tresnetako identifikazio fasean (PGM) eta zuzeneko dirulaguntzetan (ZUZ) gertatu ziren.

Lehenengo kasuan, aurkeztu ziren sei ekimenetatik, lau baino ez ziren aztertu teknikoki; izan ere, horietako bat bikoiztuta zegoen, eta beste batek ez zituen betetzen dirulaguntzen onuradun izateko programa-tresnaren araudian ezarritako baldintzak. Aztertutako lau ekimenetatik hiruk baino ez zuten gainditu onartzeko gutxieneko puntuazioa. Bigarrenean, ez zen lortu dirulaguntza zuzenen % 100 (ZUZ), ez baitziren izapidetu hasiera batean planifikatuta zeuden zuzeneko zenbait ekimen.

Azkenik, araudiak ezartzen duen bezala, ekintza humanitarioko esparru-estrategien (EHE), genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuen (GBA), zuzeneko dirulaguntzen (ZUZ), eta lankidetza-programetarako laguntzen identifikazio-faseetako (PGM) tresnetatik exekutatu gabe geratu ziren funtsak ekintza humanitarioko proiektuen lerrora (PRE) bideratu ziren. Hori dela eta, tresna horrek gainexekuzioa izan du.

2025ean emandako dirulaguntzen zerrenda osoa ikusgai dago hemen.

Tresna	Aurkeztutako ekimenak	Emandako ekimenak	Funtsak agortu direlako onartu ez diren ekimenak	Baztertutako ekimenak	Ezetsitako ekimenak	Emandako ekimenak, aurkeztuen aldean	Emandako ekimenak, onartu daitezkeenen aldean
PRO	176	86	45	45	-	% 48,86	% 65,65
PRO K1	127	60	30	37	-	% 47,24	% 66,67
PRO K2	5	4	-	1	-	% 80,00	% 100,00
PRO K3	44	22	15	7	-	% 50,00	% 59,46
PRE	37	24	13	2	-	% 64,86	% 68,57
EHE	8	5	2	1	-	% 62,50	% 71,43
GBA	12	11	1	-	-	% 91,67	% 91,67
ZUZ	10	10	-	-	-	% 100,00	% 100,00
IZE	23	23	-	-	-	% 100,00	% 100,00
BEK	54	4	7	22	21	% 7,41	% 36,36
PGM	11	7	2	1	1	% 63,64	% 77,78
ID	6	3	1	1	1	% 50,00	% 75,00
EX	5	4	1	-	-	% 80,00	% 80,00
GUZTIRA	**331**	**170**	**70**	**71**	**22**	**% 51,36**	**% 71,43**


Jarraian, emandako dirulaguntzen banaketa jaso da, GJHak lortzeko egindako ekarpenaren, eragileen, eremu geografikoaren eta herrialdeen arabera sailkatuta.

2030 AGENDARAKO EKARPENA
GUZTIRA 58.891.036,75 €

GJH 1 Pobrezia desagerraraztea 3.060.506,46 €	**% 5,20**
GJH 2 Goserik ez 3.999.655,64 €	**% 6,79**
GJH 3 Osasuna eta ongizatea 2.549.999,83 €	**% 4,33**
GJH 4 Kalitate oneko hezkuntza 3.601.884,63 €	**% 6,12**
GJH 5 Genero-berdintasuna 19.944.798,38 €	**% 33,87**
GJH 6 Ur garbia eta saneamendua 2.504.707,63 €	**% 4,25**
GJH 8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 1.281.708,64 €	**% 2,18**
GJH 9 Industria, berrikuntza eta azpiegitura 140.000,00 €	**% 0,24**
GJH 10 Desberdintasunak murriztea 2.879.877,36 €	**% 4,89**
GJH 11 Hiri eta komunitate jasangarriak 590.632,00 €	**% 1,00**
GJH 12 Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak 671.550,33 €	**% 1,14**
GJH 13 Klimaren aldeko ekintza 2.262.663,04 €	**% 3,84**
GJH 15 Lehorreko ekosistemetako bizitza 568.720,56 €	**% 0,97**
GJH 16 Bakea, justizia eta erakunde sendoak 14.834.332,25 €	**% 25,19**

Funtsen banaketa eremu geografikoaren arabera

GUZTIRA 58.891.036,75 €



Hego Amerika
32 ekimen - **16.752.190,57 €**

Afrika
42 ekimen - **14.962.412,65 €** [4]

Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea
31 ekimen - **13.680.306,70 €**

Euskadi
48 ekimen - **8.791.580,05 €** [5]


Asia
11 ekimen - **3.553.273,11 €**

Nazioartekoa
6 ekimen - **1.151.273,67 €**


4 Ehuneko hori Afrikaren eremu geografikoari dagokio, ez Afrikaren ekintza positiboaren ehunekoari.
5 Ehuneko hori Euskadiko eremu geografikoari dagokio, ez Euskadiko ekintzen ekintza positiboaren ehunekoari.

Funtsen banaketa, agente motaren arabera

GUZTIRA 58.891.036,75 €



% 84,61	**Iparraldeko elkartea / fundazioa** 55 erakunde	**49.826.555,07 €**
% 6,65	**NBEri laguntza emateko iparraldeko batzordea/elkartea/fundazioa** 3 erakunde	**3.918.834,88 €**
% 3,25	**Iparraldeko ikerketa-zentroa** 4 erakunde	**1.912.620,53 €**
% 2,18	**Hegoaldeko elkartea / fundazioa** 10 erakunde	**1.282.000,00 €**
% 1,02	**Iparraldeko sindikatua** Erakunde 1	**599.904,27 €**
% 0,77	**Iparraldeko administrazio publikoekin lotutako elkartea** Erakunde 1	**455.522,00 €**
% 0,42	**Nazioarteko erakunde multilaterala** Erakunde 1	**250.000,00 €**
% 0,34	**Hegoaldeko erakunde multilaterala** Erakunde 1	**200.000,00 €**
% 0,31	**Nazioarteko elkartea / fundazioa** Erakunde 1	**185.000,00 €**
% 0,29	**Iparraldeko unibertsitatea** Erakunde 1	**170.000,00 €**
% 0,15	**Iparraldeko pertsona fisikoa** 4 erakunde	**90.600,00 €**



Guztira

58.891.036,75 €

1	Euskadi	9.271.934,37 €	% 15,74
2	Kolonbia	4.461.430,25 €	% 7,58
3	Guatemala	4.423.348,60 €	% 7,51
4	El Salvador	4.406.975,74 €	% 7,48
5	Bolivia	3.251.089,02 €	% 5,52
6	Peru	3.231.065,65 €	% 5,49
7	Mexiko	3.005.850,87 €	% 5,10
8	Ekuador	2.658.141,63 €	% 4,51
9	Mali	2.082.288,58 €	% 3,54
10	Brasil	1.961.663,11 €	% 3,33
11	Senegal	1.394.938,49 €	% 2,37
12	Palestina	1.278.000,00 €	% 2,17
13	Ruanda	1.197.177,18 €	% 2,03
14	Txad	1.168.483,70 €	% 1,98
15	Etiopia	1.013.887,48 €	% 1,72
16	Siria	1.000.000,00 €	% 1,70
17	Libano	899.999,99 €	% 1,53
18	Honduras	849.768,69 €	% 1,44
19	Venezuela	806.949,45 €	% 1,37
20	SEAD	799.496,46 €	% 1,36
21	Kongoko Errepublika Demokratikoa	732.137,43 €	% 1,24
-	Herrialde anitz	700.000,00 €	% 1,19
22	Nikaragua	692.435,02 €	% 1,18
23	Boli Kosta	610.000,00 €	% 1,04
24	Burundi	600.000,00 €	% 1,02
25	Zimbabwe	599.904,27 €	% 1,02
26	Malawi	599.808,45 €	% 1,02
27	Kuba	550.632,00 €	% 0,94
28	Guinea	550.145,55 €	% 0,93
29	Guinea-Bissau	550.000,00 €	% 0,93
30	Niger	490.790,08 €	% 0,83
31	India	375.273,12 €	% 0,64
32	Mozambike	360.086,50 €	% 0,61
33	Kamerun	325.180,12 €	% 0,55
34	Ekuatore Ginea	324.943,40 €	% 0,55
35	Txile	311.173,65 €	% 0,53
36	Costa Rica	258.765,61 €	% 0,44
37	Burkina Faso	214.604,96 €	% 0,36
38	Hego Sudan	200.000,00 €	% 0,34
39	Nigeria	199.973,00 €	% 0,34
40	Mauritania	199.506,83 €	% 0,34
41	Kenya	135.137,50 €	% 0,23
42	Tanzania	46.250,00 €	% 0,08
43	Ghana	46.250,00 €	% 0,08
44	Eritrea	13.887,50 €	% 0,02
45	Sri Lanka	13.887,50 €	% 0,02
46	Libia	13.887,50 €	% 0,02
47	Sudan	13.887,50 €	% 0,02

ELANKIDETZA
LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

2025
MEMORIA

LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO